

GRADUA: ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZA ETA ZUZENBIDEKO GRADU BIKOITZA

2021/022 ikasturtea

Emakume immigrante langileak.

Zaintza eta etxeko lanak.

Olatz Hernani Alonso

Zuzendaria: Yolanda Jubeto Ruiz

Bilbon, 2022ko ekainaren 23an



LABURPENA

Gaur eguneko errealitatea ahalik eta doien ikasteko, immigrazio kontzeptuaren definizioa eta fenomenoaren historia orokorra aztertu ditugu. Ondoren, generoa fenomenoaren ikertzeko elementu erabakigarria dela mahaigaineratu da; gizonezkoen eta emakumezkoen esperientziak, jatorri- eta harrera-estatuetan, ezberdinak direlako. Horrela, gizartean hedatuta dagoen emakume migratzaileen estereotipoa apurtzeko, Espainiako lan-merkatuan dabilen emakumeen profil nagusia deskribatu eta zaintza- eta etxeko-lanen sektorean daudenarekin bat egiten dutela behatu da: Hego Amerikatik datozen, hezkuntza maila-altua duten emakume gazteak dira, hain zuzen. Hala ere, globalizazioa dela-eta, estatuko egitura-sozial eta ekonomikoaren aldaketak sortutako beharrei erantzuten diete eta lan-segregazioaren eta gainkualifikazioaren biktimak direla ondorioztatu dugu. Gainera, sektorearen izaera pribatuagatik eta Legeen segurtasun-juridiko faltagatik, oinarrizko eskubideak urratzen dituzten lan-baldintzak dituztela agerian utzi dira. Hori dela-eta, sektorearen erregularizazioa eta haren sentsibilizazioa indartzearen beharra aldarrikatu dugu. Azken finean, lan honetan generoak, naziokotasunak eta lanaren elementuen arteko konbinazioak estatuan sortzen dituen ondorioak aztertu dira, sistemaren hutsuneak eta honen eguneratzeko beharra agerian uzteko.

RESUMEN

Para un mejor aprendizaje de la realidad actual, hemos analizado la definición del concepto de inmigración y la historia general del fenómeno. Así, se plantea que el género es un elemento determinante en la investigación, ya que las experiencias de hombres y mujeres en los estados de origen y de acogida son diferentes. De esta forma, para romper con el estereotipo de mujeres migrantes generalizado en la sociedad, se ha descrito el perfil dominante de las que operan en el mercado laboral español y se ha observado que se alinean con el de las que se encuentran en el sector de los cuidados y el trabajo doméstico. Estas son mujeres jóvenes con un nivel educativo alto procedentes de Sudamérica. Sin embargo, debido a la globalización, responden a las necesidades generadas por el cambio en la estructura social y económica del Estado, por lo que como hemos podido comprobar son víctimas de la segregación laboral y de la sobrecualificación. Además, por la privacidad del sector y la falta de seguridad jurídica de las Leyes, se ha puesto en manifiesto que tienen condiciones laborales que vulneran derechos fundamentales. Por ello, hemos reivindicado la necesidad de reforzar la regularización y sensibilización del sector. En definitiva, en este trabajo se han analizado los efectos que produce a nivel estatal la combinación de los elementos del género, la nacionalidad y el trabajo para poner de manifiesto las deficiencias del sistema y la necesidad de su actualización.

AURKIBIDEA

1. Sarrera	6
2. Marko kontzeptuala	8
2.1 Migrazioaren kontzeptua	8
2.2 Migrazioaren historia	10
2.2.1 XVI-XX. mendeko migrazioak.....	11
2.2.2 II. Mundu Gerraren osteko migrazioak.....	12
2.2.3 XXI. mendeko migrazioa.....	14
2.3 Migrazioa genero ikuspuntutik	16
2.3.1 Genero banaketa XX. mendeko bigarren erdialdetik aurrera.....	17
3. Espainiako egoera	20
3.1 Pertsona immigranteen kopurua Espainian.....	20
3.2 Sexu banaketa Espainian.....	20
3.3 Lan-merkatua	22
4. Espainiako emakume immigranteen profilak zehaztuz	22
4.1 Migratzeko arrazoiak	23
4.2 Adina eta hezkuntza-maila.....	24
4.3 Jatorrizko kontinentea eta herrialdea	26
5. Lan-segregazioa	27
6. Kualifikazioa	30
7. Lanbide-nitxoak: ordaindutako zaintza- eta etxe-lanak	33
7.1 Argibide batzuk.....	33
7.2 Langileen profilak	34
7.2.1 Generoa.....	34
7.2.2 Atzerritartasuna.....	36
7.2.3 Adina eta hezkuntza maila	37
7.3 Zaintza- eta etxe-lanak arautzeko Espainiako ordenamenduko tresna legalak eta lan-baldintzak	38
7.3.1 Kontratazioa eta Gizarte Segurantzak.....	40
7.3.2 Lanaldiak.....	41
7.3.3 Soldadak.....	42
7.3.4 Zaurgarritasuna eta diskriminazioa	44
8. Ondorioa	46
9. Bibliografia	49

ERABILITAKO BALIABIDEEN ZERRENDA

Grafikoak

I. grafikoa: migrazio modernoan 2. etapa: garapen bidean dauden herrialdeetako nazioarteko migratzaileen kopurua (1960-1989).....	13
II. grafikoa: xxi. mendeko lekualdatzeak eta errefuxiatuen kopurua.....	15
III. grafikoa : munduko populazioa eta pertsona migratuen % (1995-2019).....	16
IV. grafikoa: 2020ko munduko migrazioaren banaketa %	19
V. grafikoa: migrazioaren hazkundera espainian (1998-2022).....	20
VI. grafikoa: 2021eko emakume atzerritarren adin banaketa espainian	24
VII. grafikoa: 2021eko espainiako emakume atzerritarren jatorrizko kontinentea %	26
VIII. grafikoa: 2022ko 1. hiruhilabeteen espainian zaintza-lanetan dabiltzan okupatuak, sexuka	35
IX. grafikoa: 2019an etxeko langileen sistema berezian lanean alta emanda gizarte segurantzaren afiliatutako langile atzerritarren batzbestekoa , nazionalitateko herrialdearen arabera.....	36
X. grafikoa: 2022ko lehenengo etxeko langileek egindako ordu kopuruen banaketa.....	42
XI. grafikoa: 2020ko batezbesteko soldatak jarduera motaren arabera	43

Taulak

I. taula : 1960-2005 emakume migratzaileen % munduan.....	18
II. taula: nazioarteko migratzaile guztien artean emakumezkoek aukeratutako harrera estatuak (1980-2000)	18
III. taula: xx. mendeko espainiako immigrazio banaketa	21
IV. taula: espainiako immigrazio netoaren banaketa (2019-2021)	21
V. taula: espainiako immigrazio aktiboa generoka (2019-2021).....	22
VI. taula: espainiako emakume immigranteen batzbesteko adina(2018-2020).....	25
VII. taula: 2021an 16 urte baino gehiagoko emakume immigranteen hezkuntza maila	25
VIII. taula: 2021eko espainiako emakume atzerritarren jatorrizko herrialdeak.....	27
IX. taula : 2022ko 1. hiruhilabeteen espainiako okupatuak, sexuaren % eta jardueraren arabera	28
X. taula: 2022ko 1. hiruhilabeteen espainiako emakume okupatuak, sektoreka, nazionalitatearen arabera	29
XI. taula : 2022ko lehenengo hiruhilabeteko etxeko langileen aldi baterako kontratuen luzeera.....	40
XII. taula: 2022ko lehenengo hiruhilabeteko etxeko langileen lanaldi motak.....	41

Irudiak

I. irudia: migrazio prozesuak	9
II. irudia: migrazio modernoan 1. etapa.....	12

LABURDURAK:

BAI: Biztanleria aktiboaren inkesta.

EEBB: Estatu Batuak.

EEZP: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.

EIN: Estatistikako Institutu Nazionala.

LANE: Lanaren Nazioarteko Erakundea.

NBGP: Nazio Batuen Garapenerako Programa.

1. SARRERA

Gizakion historiaren hasieratik existitu eta naturala bezain globala den immigrazioaren fenomenoak, pertsonen euren ohiko egoitza utzi eta beste toki batera joateari egiten dio erreferentzia, bertan modu iraunkor zein behin-behineko ezartzeko. Azpimarratu beharra dago, ugariak direla fenomeno hau ezaugarritzen eta baldintzatzen dituzten elementuak; horien arabera prozesuak izaera eta ondorio zehatzak izango ditu. Beste hitz batzuetan, gizarte-banalerro hauek, norbanakoen eguneroko bizitzan ondorio zuzenak sortuko dituzte; eskubide eta aukerak baldintzatu eta bazterkeria- zein pribilegio-egoerak eragin. Euren artean, aipatzekoak dira generoa, gizarte-klasea, jatorri nazionala, arraza, etnizitatea eta erlijioa, atzeritarra izatearen baldintza juridikoarekin batera (Anthias, 1998, 512 or.).

Immigrazioa urte luzeetan adituen azterketa objektua izan da. Dena den, aipatutako generoaren elementua, beste batzuen artean, guztiz ahaztuta egon da; horregatik emakume eta gizonen immigrazio prozesuak modu berean ikasi eta ulertu dira. Hala ere, 90ko hamarkadan migrazioa eta generoaren elementuak elkarrekin biltzen zituzten ikerketa eta produkzio idatziak ugaritu ziren emakumeek migrazio-proiektuan duten posizioaren aldaketaren eskutik. Aitzitik, emakume etorkina rol pasiboarekin lotzetik- hau da familia berrelkartzeagatiko edo gizonen laguntzeagatiko prozesuak-, arrazoi propioengatik migratzen hasi zen; horrela, migrazioaren feminizazioaren fenomenoak gorpuztu zen. Behinik behin lana aurkitu eta bizi-baldintzak hobetzeko egiten zuten.

Momentu horretan, globalizazioaren garai gorenean, mendebaldeko beste herrialde batzuetan bezala, Espainiako egituraren aldaketa ugari eman ziren; besteak beste, gizartearen zahartzea, emakumea etxean zaintza eta etxeko lanak egiten egotetik ordaindutako lan-merkatuan txertatzea (Oso & Parella, 2012, 14-15 or.). Horrek, sexu-banaketagatik historikoki emakumeei egozten zitzaizkien zaintza eta etxeko lanen berrantolaketa soziala ekarri zuen. Horrenbestez, horiei aurre egiteko irtenbide alternatiboak txertatzeko beharra sortu zen; etxeko langileak kontratatzea, hain zuzen ere. Mahaigaineratu beharra dago, hala ere, lehenengo goi mailako klaseak soilik egiten bazuen ere, egun erdiko klaseak ere kontratatzen dituela.

Horrela, egun, emakume immigranteek okupatzen dute batez ere zaintza eta etxeko lanen sektorea, Espainian gainerako Europar Batasuneko herrialdeekin alderatuta oso handia dena. Horrek zuzeneko lotura du gizarte zerbitzuen eredu familiarrarekin eta atzeritartasun legearen baldintzak baldintzekin. Berezko dituzten ezaugarriengatik eta lanaren izaera eta estigmatik, ordea, sektorea diskriminazio eta zaurgarritasun iturria da; hain zuzen, lanbide-nitxoak bilakatu da emakume hauentzat.

Gauzak honela, lan honen helburua atzeritartasunaren, generoaren eta lanaren dimentsioak aintzat hartzearen garrantzia azpimarratzea da; hiru elementuek harrera estatuetako esperientziak erabat definitzen baitituzte. Era berean migratutako emakumeari Doktrinaren zor zaion lekua eman eta haren gain dagoen estigmatizazioa gezurtatzea bilatzen dugu; datuek adieraziko dute gizonak

beste diren kalifikazio altuko langileak direla. Horrela, Espainiako lan-merkatuko zaintza- eta etxeko-lanen sektorea aztertuko dugu. Hain zuzen ere, lan-segmentazioa abiapuntu, emakume migratuek okupatzen duten -edo esleitzen zaien- sektore handiena eta garrantzitsuenaren ikerketa garatuko da. Ikuspegi global baten bitartez, beraz, Espainiako instituzioen datuak oinarri, emakume langileen ezaugarriak eta dituzten lan-baldintza definituta, agerian jarriko da aztergaia den sektorea naziokotasun zehatz batetako emakume immigranteentzako lan-nitxoa dela; hauek dituzten ezaugarriei moldatuta ez dagoena.

Azterketa hau garatzeko, erabilitako metodologia planteamendu zabala eta nahasiari erantzuteko erabili da; hain zuzen ere, emakume immigranteen prozesuetan eta zaintza- eta etxeko-lanetan dabiltzanen bizitzetan inplikaturako eragileak eta horien ondorioak ikertzeko. Horretarako, bi iturri mota erabiliko ditugu; alde batetik, metodologia ezberdinen bidez etxeko langileen egoera, eta horien gizarte-, ekonomia- eta lan-zailtasunak aztertu dituzten artikuluen berrikuspen literarioa; bestetik, azterketa kuantitatiboa, datu ofizialak biltzen dituzten instituzioetatik ateratakoak: Estatistikako Institutu Nazionala -hemendik aurrera EIN- , Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, Lanaren Nazioarteko Erakundea. Esan daiteke, beraz, azterketa hau garatu eta ondorioak ateratzeko metodologia analitiko-sintetiko erabili dugula. Aipatu beharra dago, ordea, estatuko zein nazioarteko entitateek gaian esanguratsuak izan daitezkeen datu osorik ez dituztela; horregatik, izen handiko instituzioen zuzendaritzapean, zenbait entitatek egindako inkestan eta estimazioak kontuan hartu dira. Arestian aipaturako guztia kontuan hartuta, hortaz, ikerketa deduktiboa garatu dela baieztatu dezakegu; bibliografia zientifikoa erabilia beharrezkoak izan diren kontzeptuak definitu, datuen bitartez gaur eguneko egoera aztertu eta ebidentzietatik ondorioak atera baititugu.

Lanak zentzua izan dezan, ezarri dugun egitura ondorengoa da: lehenik eta behin, migrazioak adiera eta esanahi ezberdinak hartu ditzakeenez, kontzeptuaren definizioari hurrenkera egin zaio; bigarrenik, Doktrinak migrazio-prozesuak historikoki ikasi dituen moduan aurkezten dira, momentu bakoitzaren berezitasunak azaltzeko; ondoren, aurreko parteari genero aldagaia txertatzea falta zaiolakoan, emakumeen migrazio prozesuak eta historikoki eman diren banaketak azaltzen dira. Parte historikoa finkatu eta, Espainiak egun duen egoera azaltzen da hurrengo puntuan, migrazioa abiapuntu izanik. Lanaren haria den generoa oinarri, ondoren, emakume migratuen profila orokorra deskribatzen da, aurrerago zaintza lanetan dabilenarekin bateragarria den edo ez behatzeko. Bosgarren eta seigarren puntuetan, emakume immigrante langileen prozesuak ezaugarritu eta determinatzen dituzten lanbide-segregazioa eta gain kualifikazioa mahaigaineratzen dira, gero, zazpigarren puntuan, zaintza- eta etxeko-lanaren sektorea sakontasunez aztertzeko. Langileen profilak eta hauen gain dagoen legedia eta dituzten baldintzak xehetu ondoren, zortzigarren puntuan, azterketa osoaren ondorio nagusiak plazaratzen dira.

2. MARKO KONTZEPTUALA

Migrazioa disziplina eta ikuspuntu oso ezberdinetatik aztertu daitekeenez, haren definizioari hurrenkera egitea ezinbestekoa deritzogu.

2.1 Migrazioaren kontzeptua:

Giza-espezia osatzen duten pertsonak etorkinak zein etorkinen ondorengoak dira; migrazioa norbanakoen historia markatu duen prozesua da, giza-izaera-sozialaren parte baita. Hala ere, hain da konplexua non ez dagoen terminoari buruzko ahobatezko definiziorik. Horrek, herrialde ezberdinetan immigrazio-bolumenaren azterketa eragozten du, hau neurtzeko irizpide ezberdinak erabiltzen direlako. Beste hitz batzuetan, fenomenoak kuantifikatzeko zailtasunak aurkitzen dira, oinarritzko irizpide minimo, komun eta globalak ezarrita ez daudelako. Horregatik, askotan, datu gordinak erabili beharrean, estimazioetara jo behar da.

Ondorengo lerroetan, aztergaia den kontzeptuari hurbilketa teorikoa egingo zaio, doktrina-zientifikoan dauden proposamen ezberdinak labur azalduz; autoreek immigrazio kontzeptuarekiko hurreratzea elementu eta ikuspuntu ezberdinetatik egin dute, aipatu den moduan, dimentsio ezberdinetako objektua delako.

Hala ere, lehenik eta behin, arlo honek sor ditzakeen arazo terminologikoak ekiditeko argibide batzuk emango ditugu. Pertsona bakoitzaren jatorria eta helmuga herrialdeak “garatu eta garatu gabeko edo hirugarren munduko” hitzekin deskribatuko dira askotan eta horien esanahia argitzea garrantzitsua da. Herrialde garatu bati buruz ari garenean, bizi-kalitate handia eta garapen industrial eta sozioekonomiko handia duena izango da; per capita diru-sarrera 12.055 dolarrekoa edo altuagoa denean (Munduko Bankua, 2020) eta giza garapenaren indizea 0,80 edo altuagoa denean (Nazio Batuen Garapenerako Programa -hemendik aurrera NBGP-, 2020), hain zuzen ere. Ohikoena da iparraldean kokatuta dauden estatuei buruz aritzea: Estatu Batuak -hemendik aurrera, EEBB-, Islandia, Espainia. Garatu gabeko herrialdeak, ordea, bizi-kalitatearen, per capita diru-sarreraren eta industria-garapenaren maila baxuak dituzten herrialdeak dira, normalean sektore industrialak garatu gabe duena; per capita diru-sarrera 12.055 dolar baino baxuagoa eta giza garapenaren indizea 0,79 edo baxuagoa duena, alegia. Hegoaldeko herrialdeak dira, gehienez: Afganistan, Sierra Leona, Ghana, beste askoren artean. Lanean zehar, 3. munduko herrialde moduan ere izendatuko ditugu. Azkenik, garapen bidean dauden herrialdeak, izenak adierazten duen moduan, aurreko bien artean kokatzen da; adierazle ekonomikoak arestian aipatutako bi parametroen artean daude. Azpimarratu beharra dago, ordea, terminoak inbertsio eta prestakuntza prozesu azkar baten bidez, oso erritmo bizkorretan haztea lortzen duen ekonomiei egiten diola erreferentzia -jatorrizko egoera garatu gabekoa izan ohi da-.

Bestalde, migrazio hitzaren aldaerei erreferentzia egingo diegu. Pertsona-migrantea, jatorrizko lekutik irteteko eta beste batera joateko erabakia hartzen duen pertsona da; emigratzailea, bere

ohiko bizileku geografikoa edo administratiboa beste batera aldatzen duen pertsona -jatorritik irten- da; eta immigrantea, aukeratutako helmugan finkatzera doana -helmugan sartu-. Hiru termino hauek, migrazio-prozesua gorpuzten dute (Gutiérrez, Borré, Montero, & Mendoza, 2020, 301-304 or.).

I. IRUDIA: MIGRAZIO PROZESUAK



Iturria: propioa, 2022.

Beharrezkoak ziren azalpenak emanda, Joaquin Arangoren (1985) migrazio kontzeptuaren proposamena izango da lehen aztertuko dena. Arangok honela definitzen du migrazioa: adierazgarria den distantzia baterako lekualdaketa edo egoitza-aldaketa da, izaera iraunkor erlatiboa edo iraunkortasunerako borondatea duena. Proposamen honetan distantzia eta denboraren elementuak azpimarratzen dira. Dena den, ugariak dira definizio honi gehitu dakizkikeen elementuak; hala nola, elementu psikologiko eta psikosozialak, hauek norbanakoaren kanpo zein barne errealitateak azertuak, mugapen geografiko eta administratiboak, prozesuaren helburua, borondatezkotasuna.

Anbiguotasun horren aurrean, doktrinaren beste alde batek, prozesuaren izaera esleitzen dio kontzeptuari. Honela, migrazioa 3 azpiprozesuz osatuta dagoen tesiari eusten dio: espaziala, mugaketa geografiko esanguratsuen artean eman behar da-eta (udalerrri, probintzia, eskualde zein herrialdeen artekoa); denborazkoa, lekualdaketa iraunkorrari erreferentzia eginez; eta soziala, norbanakoaren ingurunean aldaketa fisiko eta sozial nabaria dagoelako. Beraz, migrazioak modu iraunkor batean, subjektuaren inguru politiko, administratibo, sozial edo/eta kulturalean aldaketa ekarri beharko lukeela defendatzen dute. Eta ez hori bakarrik, prozesu konplexua den heinean, zientzia ugariaren ikuspuntutik, gainerako pertsonen eta kolektiboen gain eragina duela aitortzen dute (León, 2005, 61 or.).

Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Gaietako Sailak proposatzen duen immigranteen definizioa da egun hedatuena dagoena. Horregatik, lan honetan erabiliko da, Arangoren proposamenarekin bat egiten duena. Ondorengo ezartzen du: helmugako herrialdearen ikuspegitik, bere nazionalitatea edo ohiko bizilekua ez den beste herrialde batera lekualdatzen den pertsona, helmugako estatu batera, alegia; horrela, helmugako herrialdea bere ohiko bizilekuko herrialde berri bihurtzen da. Epe-luzeko immigrazioaren terminoaz ere ezaguna da doktrina-zientifikoan. Kasu honetan ere, denbora eta distantzia kontuan hartzen dira.

Aipatzekoa da, instituzioak, 1999. urtera arte, migrazioaren existentzia bermatzeko atzerriko herrialdean 12 hilabeteko gutxieneko egonaldia ezartzen zuela. Hala ere, gaur egun, urtebeteko nahitaezko muga gainditu eta pertsonaren ohiko-bizilekuaren aldaketa hartzen du irizpidetzat. Horrela, kanpoan geratzen dira aisialdirako, oporretarako, senide eta lagunei bisitak egiteko, negozioetarako, tratamendu-medikoetarako edo erlijio-erromesaldirako bidaiatzen duten pertsonak. Aipatu beharra dago, ordea, nahiz eta denborazko-muga zehatzik ez egon, denbora elementu erabakigarria dela fenomenoaren existentzia behatzeko.

Beraz, faktore ezberdinak kontuan hartuta, era batean edo bestean ezaugarritu daitezke migrazioak; hala ere, agerikoa da denborak eta distantziak ezinbesteko garrantzia dutela. Lan honetan zehar aztertuko den migrazio kontzeptuak, inplizituki, nazioarteko elementua barnebilduko du; hau da, distantziaren elementua kontuan hartuta, herrialde batetik besterako prozesuak ikasiko dira; estatu bateko mugetatik atera eta beste herrialde batekoak gurutzatzen dituztenak, alegia. Eta, beraz, barne-migrazioak alde batera utziko dira kasu honetan -udalerrri, estatu, konderri, barruti edo eskualdeen arteko joan-etorriak, alegia (Ramírez,1992, 42 or.) -.

Aipamen txiki bat egin behar zaie, bestalde, migratzeko erabakia motibatzen duten arrazoiei. Izaera ezberdinekoak dira hauek: ekonomikoak, politikoak edo sozialak, hain zuzen ere. Aipatzekoak dira gatazka politikoak eta sozialak, gerrak, jazarpenak, hondamendi naturalak, lehen mailako beharrak asetzeko, baliabide gehiagoren beharra, garapenerako egokiagoak diren inguruak... Migrazio-prozesua determinatzen duten faktoreak dira, migrazioa baldintzatu eta definituko dutenak, alegia.

Gauzak honela, historia osoan zehar nazioarteko immigrazioaren adibide anitz aurkitu daitezke; denborak aurrera egin duen ahala, norbanako immigrantearen kategoria eta jatorria aldatuz joan da eta, beraz, migrazioa bera. Ondorengo puntuan, immigrazioaren historiari hurbilketa azkarra egingo zaio, fenomenoaren azterketaren ikuspuntu androzentrismo mahaigaineratu eta gaur eguneko egoera hobeto ulertu ahal izateko.

2.2 Migrazioaren historia

Jakina denez, migrazioa gizateriaren historian betidanik existitu den fenomeno da, jatorria duela 150.000 urte duena; hain zuzen, *Homo sapiens*-a Afrikatik atera eta Eurasia eta luraren gainerako lekuetara heldu zenekoa elikagaien, bizitzeko leku baten eta arroparen bila. Hortik aurrera, ugariak izan dira zibilizazioek arrazoi ezberdinak zirela-eta egindako immigrazioak. Historiako momentu bakoitzean emandako baldintzek migrazioen tipologia, kausak eta ondorioak markatu ditu: antzinaroan Grezian, Kartagon eta Erroman metropolien merkatua zabaltzeko antolatzen zituzten fluxu migratzaileak; Europako Erdi Aroan gertatu ziren migrazio-prozesu masiboak -haien artean garrantzitsuenak inbasio barbaroak, Islamaren hedapena eta Bizantziar Inperioaren eraketa - etb.

2.2.1 XVI-XX. mendeko migrazioak

Aniztasunaren aurrean, lanaren helburuari jarraiki, XVI. mendea hartuko dugu abiagunetzat. Horrela, lehenik eta behin, aro modernoko lehen etapa hiru zati ezberdinetan azalduko da. Lehenengo fasea, XVI-XIX. mendeen artean kolonizazioak eragindako bi izaerako lekualdatzeek gorpuzten dute: alde batetik, hegoaldeko iparralderako hertsapenezko migrazioa, Afrikatik Amerikarako esklaboen komertzioan oinarritzen zena; eta bestetik, aberastasunaren bila zihoazen europarren migrazioa. Amerikako kolonizazioaren aurreko urteak geroztik, 60 milioi kolono europarrek kontinenteko iparralde zein hegoaldera 10-20 milioi esklabo bidali zituzten plantazioen jabeen, buruzagi edo jauntxo afrikarren eta esklaboen salerosleen beharrak bete zituzten; 1815-1914 urteen bitartean, behinik behin (Sutcliffe, 1998, 57 or.).

Bigarrenik, XIX-XX. mendeen bitartean, sasoiko-esklaboen figurapean, India eta Txinako langileek, Hegoafrika, Asia, Ozeania eta Amerikarako bidaia egin zuten. Konkretuki, aro kolonialean, 30 milioi pertsona Indiatik Birmania, Sri Lanka, Malaysia, Singapur, Maurizio, Hegoafrika, Guayana eta Jamaikara joan ziren meatzetan eta landaketan lan egitera. Modalitate beraren pean, sasoiko-esklabo moduan, alegia, zenbait milioi txinatarrek ere Asiako hegoaldera, Ozeano Bareko uhartetara, Karibera eta Hegoafrikara migratu zuten.

Bigarren etapa honen berezitasuna da esklabutzaren alternatiba modernoa izan zela, aldi baterako lan kontratuak sinatzen baitzituzten, 10 urte eta gero euren jatorriko herrialdera bueltatzeko. Horrela, nahiz eta migrazioa hasiera behartuak ez egon, helmugako herrialdeetan euren egoeraz baliatu eta borondatez hartzen ez zituzten lanak egitera eta baldintzak onartzera behartuta ikusten zuten euren burua. Gainera, kontratua bukatuta, diru faltagatik, asko ezin ziren euren jatorrizko herrialdeetara bueltatu. Gauzak honela, aipatu daiteke, pertsona migratzaile hauek helmugako herrialdeen eskulan-falta asetu zutela eta, horretarako, giza-eskubide eta eskubide-politikoak ukatu zitzaizkiela (Sutcliffe, 1998, 57-58 or.). Hurrengo ataletan lanaren objektu den migrazioarekin antzekotasunak hauteman daitezke, behin-behinekotasunari eta harrera estatuko beharra asetzeko migrazioari buruz ari baikara. Kontuan izan behar da, ordea, historiaren momentu honetan gizonezkoen prozesuei buruz ari garela.

Azkenik, XVIII. mendean hasi eta XX. mendean, iparraldetik-hegoalderako prozesu erdi-libreak nagusitu ziren, mendebaldeko Europatik, Amerika eta Australiara artekoak, alegia. Kartzelan egondakoak ziren gehienak, Erresuma Batuko agintariak erbesteratzen zituztenak. Estatu liberalaren sorreraren azken etapa honetan, Europatik ondorengo migrazioak gertatu ziren: Argentinara 5,7 milioi pertsona -1857-1926-, Brasilera 5,6 milioi pertsona -1820-1930-, Kanadara 6,6 milioi pertsona -1831-1924- eta Amerikako EEBBtara 36 milioi pertsona -1820-1924-; hain zuzen, mendebaldetik 60 milioi pertsona lekuz aldatu ziren (Sánchez Alonso, 2002, 22 or.). Horretarako arrazoi heterogeneoetan aurkitu zuten motibazioa: etsipena, abentura, askapena...

Garrantzitsua litzateke azken etapa hau aurreko biekin alderatzea, ugariak baitira haien arteko ezberdintasunak. Alde batetik, hirugarren garaiko immigratzaileen jatorria garatuago zegoen

herrialdeak izan ziren, betiere, irizpide kapitalistaren begietan - kasu zehatzetan erdibideko egoera zuten estatuak ziren: Espainia, Italia, Irlanda. Bestetik, emigrazio eta immigrazio estatuetan sortutako ondorioak aurreko bietan baino sakonagoak izan ziren; honen adibide argia da egitura etnikoan eragindako efektuak. Azkenik, bidaia egiteko aukeramenak pisu handiagoa izan zuen, beste biek in erkatuz. Modu honetan, Europako zenbait eskualde txiro hustu eta, urte batzuk geroago, jendetsuak diren munduko herrialderik aberatsenetarikoak bilakatu ziren; azken migrazio honek mundu kapitalistaren garapena ahalbidetu zuen nolabait (Sutcliffe, 1998, 57-59 or.).

Arestian aipatutakoa eskematizatze aldera, ondorengo taulak migrazio bakoitzaren ezaugarri esanguratsuenak azpimarratzeko balio izango du.

II. IRUDIA: MIGRAZIO MODERNOEN 1. ETAPA

ESKLABOTASUNA + KOLONOAK	ALDI BATERAKO ESKLABUAK	HERRIALDE GARATUETATIKO MIGRAZIOA
XVI-XIX. mendeak	XIX-XX. mendeak	XVIII-XX. mendeak
Hegoaldetik/ Iparraldetik: → Iparraldera → Hegoaldera	Hegoaldetik: → Iparraldera	Iparraldetik: → Iparraldera → Hegoaldera
Behartutakoa / Librea	Erdi-behartutakoa	Erdi-librea

Iturria: propioa, 2022


2.2.2 II. Mundu Gerraren osteko migrazioak

Bigarren Mundu Gerraren ondoren¹ aurkitzen da migrazioaren bigarren goraldia, 1950. urtearen inguruan hegoaldeetik iparralderako bidaiekin. Garatutako herrialdeen enplegu tasek, industrializazioak eraginda, soldatapeko lan iturri berriak bilatzeko beharra agerian utzi zuten; horrela, emakumeengana eta pertsona migratuengana jo zen, hauek lan merkatuan txertatzeko.

1960. urtea baino lehen hasitako immigrazioek garatutako herrialdeetan izan zuten jatorria. Hala ere, 1964tik aurrera joera aldatzen joan zen; izan ere, Ameriketako EEBBtatik hasita, eta immigrazioaren jasotzaileak ziren gainerako estatuetera ondoren, hirugarren munduko pertsonak heldu ziren. bi arrazoi nagusi zituzten: alde batetik, europarren deskolonizazio prozesuak – Britainia Handia eta Frantzia kasu -; bestetik, EEBBen eta Latinoamerikako herrialdeen arteko ezberdintasun nabaria.

¹ Puntu honetan azalduko duguna 1950. Urtetik aurrerako egoera bada ere, aipatzekoa da guerren eta sistema absolutistak direla-eta, hainbat pertsonen euren jatorrizko herrialdeak utzi behar izan zituztela; adibidez, 1933 eta 1937 bitartean, 130.000 juduk Alemania nazionalsozialistatik alde egin behar izan zuten (Gertjan Broek, Annefrank webgunea).

I. GRAFIKOA: MIGRAZIO MODERNOEN 2. ETAPA: GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEETAKO NAZIOARTEKO MIGRATZAILEEN KOPURUA (1960-1989)



Iturria: NBGP(1992).

Grafikoa aztertuta, agerikoa da 30 urte horien artean hegoaldeetik iparralderako migrazioen joera hazkorra izan zela: EEBBetan, adibidez, 1960. urtean populazioaren %50 atzerrikoa izatetik, 1980. urtean, %87 izatera igaro zen, Latinoamerikatik etorritako etorkinen fluxuekin; Alemanian ere %23tik %48ra igaro zen; eta Australian %9 izatetik %47 migratutakoa izatera izan zen 30 urteren buruan. Gauzak horrela, NBGP 1960-2000. urteen artean, 35 milioi etorkinek egoitza iparraldean jarri zutela aurreikusitako zen, hirugarren munduko herrialdeetako populazioaren %1aren migrazioa suposatuz zuelarik (Sutcliffe, 1998, 60 or.).

1980tik 2000. urtera arte, bestalde, pertsona migratzaileen kopurua %75an igo zen; 100 milioi izatetik kopurua 175 milioi pertsona migratzaile izatera igaro zen, Nazio Batuen Populazio Banaketa oinarritzat hartuta. Igoera horren eragile garrantzitsuenetariko bat Sobietar Batasunaren zatiketa izan zen – migratzaile guztien 1/3 bertakoa zen-. Lurralde garatu eta erdi garatuetan zeharo igo zen immigrazioa urte haietan. Modu horretan, migratzaileen gehiengoa herri gutxitan kontzentratu zen; hala nola, aipatzekoa da masa osoaren $\frac{3}{4}$ 28 herrialdeetan elkartu zirela. Banaketak ondorengo forma hartu zuen: 13 garapen-bidean dauden herrialdeetan, 10 garatuak dauden herrialdeetan eta 4 Sobietar Errepublika Sozialisten Batasun ohiaren ondorengo herrialdeetan (Blanco Fdz. De Valderrama, 2006, 31-33 or.).

XX. mendeko azken urteetan eman zen migrazio-prozesua hazkuntza faktore berezi batzuegatik baldintzatua egon zen. Alde batetik, garapen bidean zeuden estatuak jatorria zuten pertsonentzako, estatu garatuek eskaintzen zituzten diru-sarrerak eta lan aukerak oso erakargarriak ziren. Bestalde, aldaketa politiko bortitz ugari eman ziren, Sobietar Batasuneko erregimen komunistarekin bukatu zuena adibidez, zeinak migrazio prozesu ugari hasarazi zituen, jugoslaviarrak ondoko herrialdeetara babes eske bazihoazen. Gauza bera gertatu zen Espainiaren kasuan; nahiz eta 60. hamarkadara arte, nagusiki, Gerra zibila dela-eta emigrazioaren fenomenoak

jasan², demokrazia heldu zenetik, helmuga estatua bilakatu zen -1985-. Izan ere, demokraziaren ezartzeak sistema ekonomiko eta sozialaren garapena ekarri zuen: atzerriko kapitalaren injekzio masiboa, Europar Batasuna egiturazko funtsen bidez finantzatzea, azpiegitura-lan izugarria, nekazaritza-politika komunaren bidez hau laguntzea, enpresa txiki eta ertainen eta erdi-mailako klase dinamikoen garapena, Espainiak Europako gainerako nazioen itunean sartzeko zuen borondateak atzerriko eskulanaren eskaria handitzea, besteak beste (Rodríguez, 2008, 200or.). Hortaz, batez ere, faktore ekonomikoek eta politikoez eragin zituzten XX. mendearen bigarren erdialdeko migrazioak; lehenengo erdialdikoak gerrek markatu zituzten.

Hurrengo urteetan, hegoaldeko herrialdeetan garapen-itxaropenak bete izan balira, joera hau aldatuko litzatekeen. Hala ere, hirugarren munduko herrialdeek txiro jarraitu zuten, hegoaldetik iparraldeko migrazioek jarraitu dute XXI. mendean ere (Colomo Ugarte, 2001, 37-38 or.).


2.2.3 XXI. mendeko migrazioa

XXI. mendeko nazioarteko migrazioa fenomeno korapilatsua da; izan ere, inoiz baino gehiago, munduko ekonomiak, ingurumena, gizarteak eta segurtasuna elkarrekin konektatuta daude. Hori dela-eta, ondorengoak dira gaur egungo migrazioaren ezaugarriak.

- Ekonomia globalizatuaren ondorioz, migrazioa geopolitikarekin, merkataritzarekin eta kultura-trukearekin lotzen da; estatuetan, enpreetan eta komunitateetan eragina sortuz: XXI. mendeko migrazio-prozesuek izaera globala dute.
- Azken 20 urteotan behartutako migrazioei egin behar zaie aipamena; nahiz eta, askotan bizi-baldintza hobek motibatzen duten prozesuaren hasiera, beste askotan giza-segurtasun falta eragiten duten gatazka belikoez, jazarpenak, klima-aldaketak hainbat pertsona migratzera behartu dituzte; errefuxiatuen figura pean sartzen direnak, alegia. Ondorengo grafikoan ikusi daitekeenez, euren borondatearen kontra migratutako pertsonen kopurua hazi den moduan, errefuxiatuenak ere modu nabarian gorantz egin du.

² Gerra Zibilean (1936-1939) milioi erdi erbesteratu baino gehiago egon ziren Espainian; 50eko eta 60ko hamarkadetan Europa industrializatuaren zehar bi milioi langile espainiar inguru emigratu zuten - emigrazio ekonomikoa - (Santos, 1999, 11 or.).

II. GRAFIKOA: XXI. MENDEKO LEKUALDATZEAK ETA ERREFUXIATUEN KOPURUA




Iturria: ACNUR webgune ofiziala.

- Mundua antolatzeko erabili zen Nazioarteko Westfaliar³ sistema gainditzeko joerarekin, estatuak bereizteko “mugak” zalantzatan jartzen ari dira, arestian aipatutako moduan, egungo prozesuek duten izaera globalizatuagatik.
- Nazioarteko migrazioa hainbat tipologiek gorpuzten dute: immigrante laboralaz gain, familia berrelkartzeak, itzulerako migrazioek, migrazio mistoek, enara migrazioek... hain zuzen ere.
- Ondoren aztertuko den migrazioen feminizazioa behatu daiteke XX. mendearen amaieran eta XXI. mendean (Calvillo Cisneros, 2022, 67-70 or.). Izan ere, eskulanaren eskaria handitu zen moduan, historikoki emakumeei egotzi zaien zaintza eta etxeko-lanak egiteko pertsonen beharra sumatu zen, mendebaldean. Horrela, independentzia ekonomikoa bilatzen zuten emakumeen migrazio prozesuak areagotu ziren hurrengo urteetan (Pizarro, 2007, 125-127 or.). Ordura arte, lan egiten zuten emakume etorkinak gutxi ziren eta euren prozesuak euren familiekin elkartzeko hasten zituzten. Aipatu beharra dago, ordea, XVIII-XIX mendeen artean bazeudela emakume migratzaileak; aitzitik, Ameriketako kolonizazioan emakume zuri europarren deialdia igo zen (Toro, 2018, 127-132 or.).

Gaur eguneko migrazioaren argazki azkarra eta orokorra egite aldera, Nazio Batuen estimazioei jarraiki, munduan 272 milioi pertsona migratu daude; populazio globalaren %3,5 hartzen dute; hain zuzen ere, munduko 7.700 milioi biztanletik 272 milioi nazioarteko migratzaileak dira: 30 pertsonatik 1, alegia. Eta horietatik 2/3 lanaren bila dauden norbanako migratuak dira (Migrazioetarako Nazioarteko Erakundea, 2019, 23-26 or.).

³ Europar 1648an ezarritako nazioarteko gobernantza-arauak, hainbat mendetan zehar nazioarteko harremanen funtsa definitu zutenak.

III. GRAFIKOA : MUNDUKO POPULAZIOA ETA PERTSONA MIGRATUEN % (1995-2019)



Iturria: Migrazioetarako Nazioarteko Erakundea (2019). Munduko migrazioei buruzko txostena, 2020. NBE Migrazioa.

Ibilbide historikoari erreparatuta, migrazioen joera hazkorra bada ere, agerikoa da populazioaren gehiengoak migratzeko aukera hartzen ez duela edo hartzera behartuta ez dagoela. Eta ez hori bakarrik, gorakada munduko populazioaren hazkundearekin ere zuzeneko lotura duela agerikoa da.

Arestian aipatutako guztia kontuan izanik, aipatzekoa da migrazioak XVI. mendetik hazkunderan daudela. Nahiz eta aro historiko bakoitzean, egoera politiko eta ekonomikoak migrazioak baldintzatu, XX eta XXI. mendeko migrazioak lana aurkitzeko helburuarekin aurrera eramanez zirela aipatu daiteke, egun ohikoak diren behartutako migrazioak kenduta, noski. Dena den, globalizazioak sistemaren funtzionamendua aldatu duen moduan, migrazioetan ere eragina izan du, nazioz gairik dimentsioa hartu baitute.

2.3 Migrazioa genero ikuspuntutik

Gizarte- eta giza-zientzien ikasketan, genero ikuspuntua txertatu da azken hamarkadetan; hain zuzen, mendebaldeko ezagutza androzentrikoa deseraikitzeke, urteetan ikusezin izan diren emakumeak ere ikasketa objektu bilakatu dira. Izan ere, onartu da generoak menderakuntza eta desberdintasuna eragin dituela egiturari; maskulinitatea eta feminitatearen artean, alegia.

Gure gaiaren ildotik, aipatzekoa da nazioarteko migrazioa aztertzeke teoria klasikoek emakumea ikusi ezin bihurtzeaz gain, hari buruzko estereotipoak sortu zituztela; migrazio hitza gizon migratzailearen sinonimotzat hartu da historian zehar, emakumeak emazteen edo amaren rol moduan soilik ulertuta -aitak eta ezkontideak jarraitzen dituztenen irudia-. Hala ere, genero ikuspuntua txertatzen duten ikerketen bitartez, agerian utzi da, egun emakumeek gizonen

beste migratzen dutela eta migratzeko arrazoiak ez direla ezkontzari edo familia-loturei buruzkoak bakarrik, baizik eta emakumeak bere kabuz erabakia hartzeko, horietatik at, arrazoi ugari dituela.

Gizonen eta emakumeen arteko migrazioen ezberdintasunak marrazteaz gain, emakumeen esperientziak ezberdinak eta heterogeneoak direla behatu da: migrazio-testuinguruak, jatorriak, identitate etnikoak eta gizarte-klaseak zuzeneko eragina dute migrazio-esperientzia pertsonalean, prozesu horretan betetzen duten rolean eta genero-rolen aldaketetan⁴. Lanaren gaia jorratzerakoan, adibidez, hurrengo ataletan argi utziko dugu generoak – naziokotasunarekin batera- erabat markatzen duela migratutako pertsonak hartzen duen sektorea; sektore-feminizatua da jatorrian.

Emakume migratzailea azterketa eta ikerketen objektu izaten 60. hamarkadan hasi zen, EEBBtan, migrazioen feminizazioaren fenomenoaren eskutik. 90. hamarkadan gaiari buruzko lanak areagotu ziren generoaren elementua azterketarako ezinbestekotzat jo baitzen. Egun ere, ordea, plano politiko eta akademikoan, emakume migratzaileen prozesuaren inguruko lan eta azterketa eskas daude, edo ez gizonezkoen buruz dauden beste. Hala ere, ugariak izan dira emakumeen partehartzea islatu nahi izan duten entitate, organo eta autore partikularrak; aipatzekoa da, adibidez, Nazio Batuen parte den Emakumeen Sustapenerako Nazio Batuen Ikerketa eta Gaikuntza Nazioarteko Institutua.

Emakume immigranteari zor zaion lekua emateko eta haien migrazio-prozesuak ezagutarazteko idatzi da lan hau; hain zuzen, betidanik existitu den eta isilduta egon den fenomeno mahaigaineratzeko eta emakume hauek egiten duten lan ohikoenari buruz hausnartzeko.

2.3.1 Genero banaketa XX. mendeko bigarren erdialdetik aurrera

Immigranteak diren emakumeen prozesuak aztertze aldera, lehenik eta behin, interesgarria litzateke XX. mendearen amaieran hauek izan duten presentzia ikertzea. Izan ere, 2.2 puntuan deskribatutako ibilbide historikoan, gizonezkoak protagonistak izan diren prozesua aztertu da, emakume zein gizonen prozesuak berdintzat hartuz, edo zuzenean emakumeak ahaztuta. Horregatik, XX. mendearen amaierako eta XXI. mendearen hasierako genero banaketa behatuko da orain, fenomenoaren osotasuna ezagutzeko. Horretarako ondorengo taula aztertuko dugu:

⁴ Magliano, M. (2007). Migración y género: La migración de mujeres bolivianas hacia Argentina en la segunda mitad del siglo XX. *Cuadernos del Sur. Historia*, (35-36), 446-469 orr.

I. TAULA : 1960-2005 EMAKUME MIGRATZAILEEN % MUNDUAN

URTEA	EMAKUME MIGRATZAILEAK MUNDUAN %
1960	46,8
1965	47,1
1970	47,2
1975	47,4
1980	47,2
1985	47,2
1990	49,0
1995	49,3
2000	49,7
2005	49,6

Iturria: Population División of the Department of Economic and Social Affairs of the United Nations Secretariat, Trends in Total Migrant Stock: the 2019 revision.

Nazio Batuek egindako estimazioei erreparatuta, agerikoa da azken 50 urtetan, gizonzkoen eta emakumezkoen kopurua parekoa izan dela; hau da, emakumezko migratzaileak gizonzko migratzaileak bezain beste izan dira, arestian aipatutako migrazioen feminizazioa dela-eta. Gainera, urteak aurrera joan ahala emakume kopuruaren hazkundera III. grafikoan aztertu dugun populazioaren eta beraz migrazioaren hazkunderarekin zuzeneko lotura duela hauteman daiteke. Ulergaitza da, beraz, duela gutxira arte akademian egon den ustea, edo behintzat, gizonak soilik ikertzeko joera.

II. TAULA: NAZIOARTEKO MIGRATZAILE GUZTIEN ARTEAN EMAKUMEZKOEK AUKERATUTAKO HARRERA ESTATUAK (1980-2000)


	1980	1990	2000
Herrialde garatuak	50	50,6	51
Garapen bidean dauden herrialdeak	44,7	44,2	44,6

Iturria: Population División of the Department of Economic and Social Affairs of the United Nations Secretariat, Trends in Total Migrant Stock: the 2019 revision.

Harrera estatuei aipamen txikia egite aldera, datuek erakusten dute emakumeek garatutako herrialdeak aukeratzen zituztela: orotara, herrialde garatuetan emakumeek %50ko presentzia zuten, garapen-bidean dauden herrialdeen %45ekin alderatuta. Ulertzen da jatorrizko herrialde eta hartzaileak diren herrialdeetara sartu eta irtetzeko arauketak elementu erabakigarriak direla; migratzaile-familiak bateratzea onartzea, emakumeen estatura sartzearen alde dauden neurriak, lan egiteko eta ikasteko aukerak... Beraz, emakumeek euren egoera juridiko eta soziala determinatuko dituzten faktoreak aintzat harturik, herri garatueta jotzea nahiago dutela adierazten dute estimazioek. Ezin ditugu ahaztu, ordea, globalizazioak eragindako gizarte egituraren aldaketak sortutako lan-eskaera; ondoren aztertuko dugun zaintza lanen sektorean, adibidez. Garapen bideko herrialdeek eskulanari loturiko migratzaileak jasotzen zituzten 70eko amaieratik Asiako mendebaldean eta Ozeano Barearen kostaldean gorakada izan duena (Blanco Fdz. De Valderrama, 2006, 36-39 or.).

Gaur eguneko egoerari argazki orokor bat egingo diogu, sexuen banaketa kontinenteka aztertuz:

IV. GRAFIKOA: 2020KO MUNDUKO MIGRAZIOAREN BANAKETA %



Iturria: Portal de datos sobre migración.

Datuak ikertuta, nazioarteko emakume migratzaileen kopurua eta gizonezkoen proportzioa nabarmenki aldatu ez den moduan, gaur egungo zifrek ere egonkortasuna erakusten dutela irakur daiteke. Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Gaietako Sailak 2020. urtean emakumeak nazioarteko migratzaileen munduko populazioaren erdia baino zertxobait gutxiago direla adierazi zuen; hain zuzen, 135 milioi emakume -48,1%-. Aipatzekoa da, hala ere, I. taulako datuekin alderatuta, emakume migratzaileen ehunekoa txikitu dela: 90. Hamarkadatik aurrera %49 eta gehiago hartzen zuten bitartean, gaur egun globala zifra txikitu da.


Dena den, azterketa kontinenteka egitean, European, Ipar Amerikan eta Ozeanian emakume migratzaileen kopurua gizonezkoena baino handiagoa dela ikusi daiteke – zaintza-lanen eskaria dela-eta-; eta alderantziz, Asian -%16,4ko ezberdintasunarekin-, Latino Amerikan eta Karibeetan, eta Afrikan immigranteak diren gizonezko gehiago daude. Hortaz, nahiz eta ikuspegi orokorrak gizonezko gehiago daudela erakutsi, zera ondorioztatu daiteke: garatutako herrialdeetan emakumearen presentzia handiagoa da eta garatu gabekoenetan, ordea, gizonezko immigranteak dira ugariagoak, lan-merkatuan eskaintzen dituen aukera ezberdinengatik, besteak beste.

3. Espainiako egoera

3.1 Pertsona immigranteen kopurua Espainian

Behin migrazio-fluxuen irudi orokor bat buruan izanik, Espainiako egoera zehatzari buruzko zenbait datu adierazgarri emateko erabiliko da atal hau. Lehenik eta behin, azken urteotako migrazioaren joerari erreparatuko zaio.

V. GRAFIKOA: MIGRAZIOAREN HAZKUNDEA ESPAINIAN (1998-2022)



Iturria: EIN.

XXI. mendea hasi zenetik gaur egun arte, Espainiak pertsona immigrante gehiago jaso dituela agerikoa da. 1998. urtetik 2012. urtera %88,89ko hazkundera egon bazen ere, 2013tik 2017ra %21,3ko jeitsiera eman zen. 2017tik gaur egunera arteko joera, berriz, positiboa dela behatu daiteke. Alegia, 2000. urtetik 2021 arte %87,02eko hazkundera egon da. Ondorioztatu daiteke beraz, munduko populazioak gora egin badu ere, Espainiako migrazioaren kasua ez dela horrekiko proportzionala, eman den migrazio-fluxuen hazkundera munduko populazioaren hazkundera baino askoz nabariagoa baita. Hazkunde hori globalizazioak sortu dituen beharrak asetzeko premiari egotz dakioke; hain zuzen, ondorengo ataletan aztertuko den lan ez kualifikatuen eskaerari.

Gauzak horrela, gaur eguneko egoerari erreferentzia zehatza egite aldera, 47.326.687 pertsonako populazioa duen herrialdean 5.440.148 pertsona immigrante daude EINren estimazioen arabera; hau da, egun Espainiako populazioaren %11,49 atzerritarra da.

3.2 Sexu banaketa Espainian

Bestalde, migrazio horri genero elementua aintzat hartuta, laneko 2.3.1 puntua era orokorrean aztertu bada ere, pasa den mendean Espainiako migrazioaren banaketa behatuko da.

III. TAULA: XX. MENDEKO ESPAINIAKO IMMIGRAZIO BANAKETA

URTE TARTEA	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK	TOTALA
1900-1930	12.287	-25.603	-13.316
1930-1950	32.109	-17.095	15.014
1950-1970	18.472	73.274	91.746
1970-2000	695.088	742.940	1.438.028

Iturria: Evolución de la población española en el siglo XX. *por provincias y comunidades autónomas*, Madrid: Fundación BBVA

Adierazgarria da, lehenik eta behin denborak aurrera joan ahala Espainiak jaso dituen migranteen kopuruaren hazkuntza. Lehenengo 30 urtetan, 12.287 emakume heldu baziren ere, 25.603 gizonezko migratzaileek alde egin zuten; horregatik da negatiboa migrazio garbiaren banaketa. 1930tik 1950. urtera ere, gauza bera gertatzen da; aipatzekoa da, hala ere, Espainiara heltzen diren emakumeen kopurua %61,74 hazten dela. Ageri diren hurrengo bi urte tartetan gizonezkoen kopurua positibo bihurtzen da, kopuru totala hazten den moduan; ordea, adierazgarria da 1950-1970 tartean emakumeak migratzaile guztien %20,13 izatetik, 1970-2000 urteetan %48,34 izatera igaro zirela; hau da, XX. mendean azken 30 urtetan emakume migratzaileen kopurua gizonezkoen kopuruarekin berdinduz joan zela. Hori Espainian demokraziaren ezarpenari egotz dakioke, migrazioaren feminizazioarekin batera.

Hortaz, XX. mendean zehar emakumearen presentzia gizonezkoena baino txikiagoa zen. Hala ere, eskala globalean behatu genezakeen migrazioen feminizazioa deritzogun fenomeno eman da aurreko mendeko erdialdetik gaur egunera, emakume migratzaileen kopurua handitu duena. Emakumeen migrazio-proiektu independenteen hazkundera, alegia. Horrela, gaur egun guztiz egonkorra den joera aztertzeke, banaketa-taulari begirada azkarra botako diogu puntu honetan. Hain zuzen, azken hiru urteotako egoerari erreparatzeko ondorengo taula aztertuko dugu:

IV. TAULA: ESPAINIAKO IMMIGRAZIO NETOAREN BANAKETA (2019-2021)

URTEA	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK	TOTALA
2019	2.516.733	2.520.145	5.036.878
2020	2.714.276	2.719.877	5.434.153
2021	2.714.996	2.725.152	5.440.148

Iturria: EIN.

Azken hiru urteotako sexu banaketa ia berdina dela agerikoa da, gizonezko gehiago badaude ere; aitzitik emakumezkoak %49,9 diren bitartean gizonezkoak %50,1 dira gehienez. Hortaz bi sexuen arteko ezberdintasuna hutsala dela aipatu daiteke, bi kopuruak ia berdinak baitira. Aurreko urteetan ere proportzio hori mantendu da; agerikoa da beraz, XXI. mendean Espainian pertsona immigranteen kopurua hazi dela eta horrek ez duela emakume eta gizonezkoen arteko banaketan eragin; XX. mendeko erdialdetik mantendu den proportzioa izan baita.

3.3 Lan-merkatua

Azkenik, lanaren objektu izango den lan merkatuari buruzko zifra batzuk azalduko dira, oinarri sendo batetik abiatu gaituzen. Lanari gaurkotasuna eman nahi zaionez, soilik azken urteotako baloreak ikertuko dira; hala ere, V. grafikoan azaldu den XXI. mendeko populazio migratuaren hazkundera aintzat hartuta -%87,02ekoa-, Espainiako populazio aktibo migratuaren kopurua proportzionalki hazi dela ondorioztatu daitekeela aipatu beharra dago. Azken hiru urteotako populazio aktiboaren banaketa hurrengoan izan da INEk dituen Biztanleria Aktiboaren Inkestaren-hemendik aurrera, BAI- datuen arabera:

V. TAULA: ESPAINIAKO IMMIGRAZIO AKTIBOA GENEROKA (2019-2021)

URTEA	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK	IMMIGRANTE TOTALA	TOTAL NAZIOANALA
2019	1.415.175	1.588.825	3.004.025	23.027.100
2020	1.483.500	1.595.325	3.078.825	22.733.325
2021	1.501.375	1.605.300	3.106.650	23.203.175

Iturria: BAI. EIN.

Espainiako merkatu-laboral osotik %13 migratutako pertsonak hartu dute hiru urteetan zehar; aipatzekoa da, 2019tik 2020ra %0,49ko hazkundera eman zela, ordea, 2020tik 2021. urte artean %0,15eko jaitsiera egon dela. Eta migratutako pertsona aktiboen %47,10 emakumeak izan ziren 2019; %43,19 2020an; eta %48,34a 2021ean. Hortaz, 2019-2021 urte bitartean pertsona aktiboen total nazionala hazi bada ere, pertsona immigranteen partizipazioak gora eta behera egin du; emakumeen merkatu-laboralaren partaidetza, ordea, hiru urteetan izan da hazkorra; izan ere, gero eta emakume migratu gehiago sartzen dira lan-merkatuan. Atzerriko herrialde batera egiten dute bidaia, lan merkatuan sartu – ondoren aztertuko diren sektore espezifikotan, alegia- eta bizi-baldintzak hobekitzeko.

4. Espainiako emakume immigranteen profilak zehaztuz

Espainian dauden emakume immigranteen profilak irudikatu aurretik, kontuan izan behar da, estatuaren barruan askotarikoak direla emakumeen proiektuak, ibilbideak eta baldintzak. Beraz, ondoren zerrendatuko diren ezaugarri orokoren barruan, pertsona bakoitzak berezitasunak dituela gogorarazi behar dago. Hau da, datuek erakusten duten kasu hedatuena azalduko dugu, nahiz eta patroi hauetan sartzen ez diren emakumeak badauden. Gainera, ondoren erakutsiko da Espainiako emakume atzerritarren lan-errealitatean jatorriak edo nazionalitateak aldagai bereizgarri esanguratsuak direla.

4.1 Migratzeko arrazoiak

Emakume eta gizonen antzeko arrazoiengatik migratzen dute, hala nola, hezkuntza hobea lortzeko, enplegu duin bat aurkitzeko, beren bizi-kalitatea eta familiena hobetzeko, eta senideekin biltzeko. Migrazioa jatorrizko estatuko egoera zailak ere eragin dezake, hala nola, gatazketatik eta jazarpenetik ihes egin beharrak edo prekarietate ekonomikoak. Era berean, badaude migrazioaren beste faktore berezi batzuk, prozesua hasarazten dituztenak: gazteentzako aukerarik eza, elikagaien segurtasunik eza, ingurumenaren degradazioa eta hondamendi naturalak.

Azpitarratzekoa da, gizartea gobernatzen duten berariazko genero-arauak faktore erabakigarriak direla, genero-itxaropenak eta generoaren arabera bereizitako botere-harremanekin batera, emakumeek bidaia hastea erabakitzeko. Gauzak honela, emakumeen migrazioa eragiten duen faktore garrantzitsuenetariko bat genero-erabakirik itxaropenaren delakoa da; izan ere, familiek beren alabak kanpora bidali ditzakete, atzerritik diru-bidalketak egin ditzaten. Beraz, emakumeek euren migrazio-nahiak generoari dagokionez planteatzen dituzte; euren eginbeharrak betetzen dituzten alaba eta deboziodun ama gisa aurkezten dira eta familien ongizatea bermatzeko prozesua egiten dute.

Bigarrenik, sexu-indarkeria eta genero-arrazoiengatik diskriminazioaren tasa handiek ere emakumeen immigrazioa sortzen dute. Honen adibideak dira haurren ezkontza goiztiarrak eta behartuak, indarkeria, eta eskubide eta baliabideetarako sarbide desberdinak. Honela, emakumeek familia-kontrola saihesteko nahipean prozesua hasten dute, itxaropena, baliabideak, hezkuntzarako eta parte-hartze politikorako sarbidea bilatzen dituztelarik helmugako estatuan, beste gauza batzuen artean. Aipatzekoa da, dena den, oso diskriminatzaileak diren sistema eta estatuetan emakumeek, tamalez, ez daukatela ihes egiteko aukerarik, sistemak berak emakumei oztopoak besterik jartzen ez dizkietelako.

Bestalde, helmugako herrialdeetako lan-politikek ere asko lagundu dezakete emakumeen migrazioan, eta ez gizonen eta haurren migrazioan. Izan ere, herrialde batzuetako immigrazio-legeen arabera, oso zaila da erregularatasunez sartzea eta egoera juridiko iraunkorra lortzea, legezko bizilekua ekonomia formalean enplegua izatean oinarritzen den heinean.

Era berean, ikerketa ugariaren arabera, hezkuntza-mailak eragina du emakumeen migrazioari buruzko erabakietan, gizonenak ez bezala, korrelazio esanguratsua dagoelarik migratzen duten eta hezkuntzaren eta ikasketak dituzten emakumeen artean. Izan ere, ikasketak dituzten emakumeek genero-erabakirik diskriminazio handiagoa jasaten dute jatorriko estatuan, lanbide sari gutxi jasotzen dituztelarik. Litekeena da, beraz, beste herrialde batera migratzea. Zehazki, kualifikazio handiko emakumeen migrazio-tasa gizonena baino handiagoa da, kasuen% 81ean.


Arestian aipatutakoa laburbiltze aldera, aipatu daiteke, orain dela gutxi arte uste izan dela emakumeek batez ere bikotekidearekin bat egiteko edo familia berriz elkartzeko migratzen zutela. Dena den, gaur egun, gero eta emakume gehiago mugitzen dira bakarrik, batez ere lana aurkitzeko, migrazioaren feminizazioa eragiten dutelarik. Beraz gero eta emakume gehiago dago migrazio

prozesuaren buruan, migratzen duen familiako lehen kidea direlarik (Blanco Fdz. De Valderrama, 2006, 173-182 or.); hau da, prozesu autonomoak dituztenak.

4.2 Adina eta hezkuntza-maila

EINko azken datuei erreparatuta, 2021eko uztailekoak direnak, neskato eta emakume atzerritarren adinak honako banaketa du: %15,49 0 eta 24 urte bitartekoak dira; %61,81 25 eta 59 urte ditu; eta, %22,70 60 urte edo gehiago ditu. Adinaren arabera banaketa hori ikusita, ondoriozta liteke emakume horietako asko, familia bat osatzeko eta ugaltzeko adinean gehienak, helburu horrekin iritsi direla lurraldera. Hau da, senarrekin batera edo hemen daudenekin elkartzeko egiten dutela bidaia; batzuetan seme-alabekin batera eta beste batzuetan bakarrik, baina etorkizunean haien ondorengoak ekartzeko asmoz. Emakumeak migrazio-fenomenoaren subjektu pasibo gisa ikusten dituzten estereotipoek ideia hori defendatzen dute. Hala ere, adinaren arabera banaketa honek agerian uzten du Espainian emakumeen migrazioa funtsean ekonomikoa dela; hain zuzen, erdia baino gehiago biztanleria-aktiboaren adin-lerrunean kokatzen -16-65 urte bitartean (Juliano & Harresiak Apurtuz., 2006, 150 or.). Gainera, V. taularekin erlazionatuta, agerikoa da adin lerrun horretan kokatuta daudenak lanean dabilzala.

VI. GRAFIKOA: 2021EKO EMAKUNE ATZERRITARREN ADIN BANAKETA ESPAINIAN



Iturria: EIN.

Ondoren, aurreko hiru urteen emakume immigranteen batezbesteko adina aurkezten da, arestian azaldutakoa betetzen dela agerian uzteko; hau da, banaketak irudi berdina ematen duela sendotzeko.

VI. TAULA: ESPAINIAKO EMAKUME IMMIGRANTEEN BATAZBESTEKO ADINA (2018-2020)

2020	2019	2018
33,54	33,06	32,97

Iturria: EIN.

Bestalde, Espainian dauden immigranteen hezkuntza-maila emakume nazionalena baino baxuagoa den arren, prestakuntzarik gabeko immigratzaileen estereotipotik zeharo urruntzen da.

VII. TAULA: 2021AN 16 URTE BAINO GEHIAGOKO EMAKUME IMMIGRANTEEN HEZKUNTZA MAILA

Kategoria	% Gizonezkoekin alderatuz (banaketa)	Emakume kopurua	Kategoria bakoitzeko %
Totala	52,91	2.364.500	100
Analfabetoak	55,47	60.000	2,56
Lehen mailako ikasketak amaitu gabe	45,62	72.700	3,07
Lehen Hezkuntza	47,95	238.400	10,08
Bigarren hezkuntzako lehen zikloa eta antzekoa	50,14	573.700	24,26
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa, orientazio orokorrekarekin	56,29	606.600	25,65
Bigarren hezkuntzako bigarren zikloa, lanbide-orientazioarekin	51,11	154.200	6,52
Goi-mailako hezkuntza	55,82	658.300	27,84

Iturria: Mujeres en cifras. Instituto de las mujeres. Ministerio de igualdad.

Lehenengo zutabeari begirada botata, agerikoa da emakume immigranteek gizonezko immigranteak baino heziketa maila gehiago dutela; izan ere, nahiz eta lehen hezkuntzan gizonezkoek pisu gehiago eduki, gainerako kategorietan emakumeak dira erdia baino gehiago. Aipatzekoa da, ildo beretik, goi mailako ikasketetan ezberdintzen direla gehien bi sexuak %5,82ko ezberdintasunarekin.


Bestalde, egun emakume analfabetoak dira kasurik arrotzena, emakume guztien %2,56 hartzen baitute. Ondoren, lehen mailako ikasketak amaitu gabe dituztenak daude; emakume migratzaileen %3,07 dira, mendebaldean dagoen usteari kontra eginez kopuru oso txikia hartzen baitute. Azkenik, azpimarratzekoa da goi-mailako hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza duten emakumeen direla gehienak, ondoren aztertuko denez ikasketek zenbait kasutan lan-postuan aukeratzeko eraginik sortzen ez badu ere. Arestian aztertutako datuek mendebaldean emakume atzeritaren gain dagoen estereotipoa erabat apurtzen dute; analfabetoak izatetik urruti, gehienek lan kualifikatua egiteko hezkuntza maila egokiak dituzte. Horiek, ordea, ez dute harrera estatuan izango dituzten

lanbideetan eraginik edukiko, hurrengo atalean aztertuko den moduan. Espainian dauden emakume immigranteak, beraz, lan egiteko adinean dauden pertsonak dira, orokorrean hezkuntza maila altukoak.

4.3 Jatorrizko kontinentea eta herrialdea

Grafiko datuak aztertuta, behatu daiteke Amerika dela Espainian dauden emakumeen artean ohikoena den jatorrizko kontinentea, atzerritar guztien 2/3ak bertan jaioterria baitu. Bigarrenik, migranteen ia %30 Europar Batasuneko herrialderen batetik dator. Hirugarren eta laugarren postuan Afrikan eta Europar Batasunetik at dauden herrialdeetan jatorria, hurrenez hurren, lehenengo biekiko desberdintasun nabaria dagoelarik. Azkenik, Asiako eta Ozeaniako emakume gutxi daudela behatu daiteke.

VIII. GRAFIKOA: 2021EKO ESPAINIAKO EMAKUME ATZERRITARREN JATORRIZKO KONTINENTEA %



Iturria: EIN.

Bestalde, kontinenteetako herrialde zehatzei aipamen txikia egite aldera, agerikoa da ez dela kontinenteen banaketa berdina jarraitzen. Hau da, nahiz eta kontinente bakoitzeko herrialde guztien immigrante kopurua gehituta arestian aipatutako banaketa sortu, ez da orden berdina jarraitzen herrialde indibidualak aztertuta. Gauzak horrela, ondorengoak dira garrantzitsuenak:

VIII. TAULA: 2021EKO ESPAINIAKO EMAKUME ATZERRITARREN JATORRIZKO HERRIALDEAK

Herrialdea	Atzerritar kopurua Espainian
Maroko	382.282
Errumania	332.337
Kolonbia	160.997
Erresuma Batua	137.923
Italia	115.789
Txina	115.166
Venezuela	112.787

Iturria: EIN.

VI. grafikoan aztertutako ordena betetzen ez dela agerikoa da; hau da, nahiz eta kontinente bakoitzeko immigranteen kopurua batuta Amerika den lehenengoa, herrialde zehatzei erreparatuz, Marokoko pertsonak dira ugarienak Espainian. Alde gutxirekin Errumania kokatzen da bigarren, hirugarren postuan dagoen Kolonbiatik etorritako migratzaileen bikoitza duelarik. Erresuma Batua, Italia, Txina eta Venezuelako etorkinen kopuruen artean ez dago ezberdintasun nabaririk. Hauteman daiteke, ordea, herrialde garatu baten -Erresuma Batua, Italia- edo garatu gabeko batean -Maroko, Venezuela- izateak helmugako herrialdean migrazio-prozesua determinatuko duela. Ondorengo puntuan aztertuko den heziketa-mailak zuzeneko erlazioa du arestian aipatutakoarekin.

5. Lan-segregazioa

Ezer baino lehen, aipatu beharra dago, lana elementu heterogeneoa dela; izan ere, langileen lan-indarraren bitartez gorpuzten da eta hauek ezaugarri ezberdinak dituzte: kualifikazio maila, produktibitatea, soldata, okupazioa... Horiek, herrialde ezberdinetako kolektibo demografikoen artean ezberdintasuna sortzeko faktoreak dira; batez ere herrialde garatuetan, adibidez, Espainian. Horrela, dimentsio desberdinetan behatu daiteke berdintasunaren urraketa: soldatetan, lanaren banaketan, promozio-aukeretan... Gauzak horrela, lan-segregazioak langile-kolektibo jakin batzuk okupazio eta jarduera kopuru jakin batean biltzen direla esan nahi du. Edo beste era batean esanda, lan-segregazioa langile-kolektibo jakin batzuk okupazio eta jarduera kopuru jakin batean biltzen direnean existituko da (Odrizola, 2013, 11 or.). Kontrako aldean, integrazioa dago.

Lanaren Nazioarteko Erakundearen aburuz, generoagatiko lan-bereizketa herrialde garatuetako merkatuen ezaugarri iraunkorrenetako bat da. Gizarte-harreman hierarkikoen sistema deskribatzen duen moduan, bakoitzari identitate bat sortzeko sistema sinboliko gisa ere funtzionatzen du. Genero-rolak maskulinoa eta femeninoa zehazten duten arauak direnez, identitate-irizpide bihurtzen dira. Eta horiek abiapuntutzat hartuz, patriarkatuak generoaren araberako lan-banaketa egiten du. Lanaren banaketa-sexuala ere deritzona, alegia: mundu mailan behatu daitekeen generoaren araberako lanaren banaketa, egitura hierarkiko eta bitarra sendotzen duena (Aguado Hernández, Cano Montero, Sánchez Pérez, 2020, 309-311 or.). Hau da, emakumeek eta gizonek, emakume eta gizon izanagatik, hartzen dituzten lanei egiten die erreferentzia; sektore

desberdinetan lan egin eta kargu desberdinak betetzen dituzte. Aitzitik, emakumeak, sistematikoki, ezegonkortasun handiagoa, ordainsari txikiagoa eta aintzatespen txikiagoa duten lanbideetan kontzentratuta daude; zaintza-lanen sektorea adibidez.

Lan-segregazioa modu ezberdinetan behatu daiteke: lan-banaketa-horizontala; emakumezkoen eta gizonezkoen zereginei buruzkoa edo okupatzen dituzten sektoreen arabera; eta -bertikala: kristaleko sabaiari lotu dakiokiena: zuzendaritza-postuen eta gainerako lan-postuen banaketa – goi-mailakoak gehienbat gizonek betetzen dituzte, eta emakumearen garapen profesionala mugatuago dago-. Horrek lanbide-kategorien eraikuntza sexuatu gorpuzten du; egiturazko bereizketa, hain zuzen ere. Gauzak horrela, generoak lan esparru batean aritu ezin izatea edo aukera mugatuak izatea, lan-segregazioari egozten zaio eta generoagatiko diskriminazioa eragiten duela ulertzen da (Martínez, Martínez, Perea, & Ramírez, 2019, 163-165 or.).

Segregazio bertikalaren esparruan, Munduko Foro Ekonomikoak genero-arrakala aztertze ikerketa bat publikatzen du urtero. Bertan, Genero Arrakalaren Indize Globala ageri da. Horren helburua 150 herrialde baino gehiagotan gizonen eta emakumeen arteko parekotasuna neurtzea da, funtsezko lau arlotan: osasuna, hezkuntza, ekonomia eta politika. Espainiak, 2020. urtean %79.5eko genero-berdintasuna duela agerian utzi zen, sailkapenean 8. postua hartu zuelarik. 2009. urtean, ordea, 17. postua hartu zuen; horrek agerian uzten du Espainia berdintasunerako politikak aplikatu dituela azken urteotan arrakala horri aurre egiteko (Munduko Foro Ekonomikoa, 2020). Horrela, ondorengoa da EINren datuen arabera, 2022ko 1 hiruhilekoan Espainiak duen lan-banaketa horizontala– generoen artean ezberdintasun nabariak dauden lan postuak aukeratu dira azterketa azkar bat egiteko-.

IX. TAULA : 2022KO 1. HIRUHILABETEAN ESPAINIAKO OKUPATUAK, SEXUAREN % ETA JARDUERAREN ARABERA

Jarduera	Gizonezkoen %	Emakumezkoen %
Manufaktura-industria	16,4	7,0
Eraikuntza	11,0	1,4
Hezkuntza	4,4	11,4
Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzua	3,7	15,6
Etxe-langileak	0,5	5,2

Iturria: EIN.

Lan-segregazioa modu agerian ematen diren lanbideak ageri dira aurreko taulan; totalak 10.791.300 gizonezko eta 9.293.400 emakume dira. Horrela, manufaktura-industriara eta eraikuntzara dedikatzen diren askoz gizonezko gehiago daude; emakumeekiko %8,4 eta %9,6eko diferentziarekin, hurrenez hurren. Emakumeek, ordea, hezkuntza, osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak eta etxeko-lanetara dedikatzen dira gehiago, gizonezkoen kopuruarekin alderatuz; lehenengo bietan %10eko ezberdintasuna dago, gutxi gora behera; etxeko-langileen artean, berriz, 5 puntuko ezberdintasuna. Hau da, zaintza-lanak emakumeei dagozkie. Agerikoa da, beraz, nahiz eta Espainian generoaren arabera lan segregazioarekin bukatu nahi den, oraindik ezberdintasunak behatu daitezkeela.

Generoa lan segregazioa eragiten duen elementu erabakigarria bada ere, badago diskriminazioa areagotzen duen beste bat; pobreziaren feminizazioaz geroztik, emakume atzerritar langileen egoera okertu da.

Michael Pioren lan-merkatu zatikatuaren teoriak fenomeno honen hasiera azaltzeko egokia izan liteke. Abiapuntua ondorengo da: migrazioa gizarte aurreratuen egitura ekonomikoaren eskariak bultzatzen du. Horrela, kapitalismo modernoan lan-merkatua bi sektore nagusitan banatu liteke; egonkortasuna, ordainsari altua, mozkin eskuzabalak eta lan-baldintza onak eskaintzen dituen lehen sektorea; eta, ezegonkortasuna, ordainsari baxuak eta lan-baldintza eskasak dituen bigarren sektorea. Eta gizarte garatuetan bigarren sektorean lan egiteko prest dagoen langile-kopuru nahikorik ez dagoenez etorkinek hartzen dituzte postuak. Horregatik, immigranteak harrera-estatuen beharregatik baldintzatuta daude (León, 2005, 69 or.). Teoria horri jarraiki, beraz, garatutako herrialdeetan jatorria dutenek hartu nahi ez dituzten lanbideak etorkinei esleitzen zaie – hau da, segregazioa atzerritartasuna aintzat hartuta-. Eta ez hori bakarrik, arestian aipatutako generoaren elementuak ere emakumeei zein sektore esleituko zaien determinatuko du ondoren aztertuko den moduan.

Gauzak horrela, zaugarritasun egoeraz baliatuta immigranteen lana ezegonkor bilakatu da, gizartean gutxiago baloratutako enpleguak hartu dituztelarik. Modu honetan, aipatu daiteke, atzerritartasunak emakumeen arteko desberdintasunak eta asimetriak indartzen dituela. Gainera, bai generoa eta baita atzerritartasuna aintzat hartuta, Espainiar emakumeen egoerarekin alderatuz, emakume immigranteak txarrago daude (Martínez & Garcés, 2021, 4-6or.). Beraz, ez soilik emakume izanagatik, baizik eta migratzaile izanagatik ere, sistemak lan zehatz batzuk esleitzen dizkie emakume atzerritarrei. Ondorengo taulan, sektoreka, estatuko emakumeen eta atzerritarren arteko konparaketa egingo da, bakoitzak hartzen dituen sektoreak aztertzeko.

X. TAULA: 2022KO 1. HIRUHILABETEAN ESPAINIAKO EMAKUME OKUPATUAK, SEKTOREKA, NAZIONALITATEAREN ARABERA

Sektoreak	Estatukoak	%	Atzerritarrak	%
Nekazaritza	151.700	2,0	40.300	3,57
Industria	629.600	8,1	63.500	5,63
Eraikuntza	110.800	1,4	17.100	1,52
Zerbitzuak	6.842.500	88,5	1.006.600	89,28
Totala	7.734.600	100,0	1.127.500	100

Iturria: EIN.

Espainiako emakume okupatu guztiei sektoreka argazkia aterata, egia da ez dagoela immigranteen eta estatukoaren arteko ezberdintasun handirik, kopuruaren arteko diferentziak ez baitira handiak. Hau da, egia da emakume atzerritarrek nekazaritzan presentzia handiagoa dutela estatukoak baino - %1,57ko ezberdintasunarekin-; eta era berean, proportzionalki estatuko emakume gehiago daudela industrian lanean -%2,47ko ezberdintasunarekin-. Hala ere, txikia da bi taldeen arteko ezberdintasuna. Ondoren egingo den sektorearen azterketarekin, ordea, agerian utziko da

badagoela estatukoaren eta atzerritarren arteko aldea; garatu gabeko herrialdeetan jatorria duten emakumei egungo gizarteak lanbide zehatz batzuk esleitzen dizkiotelako.

Beraz, lan-bereizketaren ondorio ekonomiko nagusia honako hau da: eragina duen biztanleentzako okupazio edo sektore-ekonomiko jakin batzuetara sartzeko oztopoak agertzea. Eta oztopoek, denboran irauten dutenez, lan-merkatuaren segmentazio-prozesuak sortzea, azkenean. Horiek dute zertan bat etorri baldintza pertsonalekin -prestakuntza, kualifikazioa, esperientzia- zerikusirik izan behar, ondoren aztertuko den modua. Lan segregazioak zuzenean baldintzatu eta diskriminatzen ditu emakume immigranteak.

Gauzak horrela, Espainian, kualifikazio gutxiko enpleguetan kontzentratzeak berekin dakar emakume horien lan-egoeraren, galkualifikazioa edo azpienplegua; hau da, hezkuntza-maila eta postuak eskatzen duen jakintzaren arteko desoreka eta horrek dakartzan ondorio kaltegarriak. Fenomeno horri zuzenean lotuta daude lan-baldintza prekarioak; emakume atzerritarrek, adibidez, gainerako taldeek baino ordainsari txikiagoak jasotzen dituzte, aldi-baterako lanen kopurua handiagoa da eta lanaldi eta ordutegi luzeagoak izaten dituzte (Sallé, Molpeceres, Óngil, 2009, 57.or.).

Beraz, emakume eta atzerritar izanagatik, garatutako egitura sozio-ekonomikoak lanbide konkretuetan kokatzen ditu, honek dituen beharrak asetzeko; horrela, berdintasuna urratu eta diskriminazioa dagoen susmoa sortzen da. Adibidez, duten ikasketa-mailagatik ez dagokien lan-postuak onartzera behartuta ikusten dute euren burua; ondoren azalduko den galkualifikazioaren izena hartzen du fenomeno horrek.

6. Kualifikazioa

Lan-segregazioaren ondorioz, baliteke langile-kolektibo jakin batzuk galkualifikatuta egotea egiten dituzten zereginetarako; hala, doktrina zientifikoak adierazten du soldata- eta kualifikazio-egiturak genero-estereotipoetan oinarritzen direla eta emakumeen lana gutxiesten dutela. Gainera, nazionalitatearen arabera lan-bereizketaren ondorioz, biztanleria immigratzailearen zati bat galkualifikatuta dago dagokion enplegurako.

Kualifikazio hitza askotan entzuten eta irakurtzen bada ere, haren definizioa ematea garrantzitsua deritzogu, ondoren azalduko diren elementuak sakonki ulertu ahal izateko. Gai konplexuagoa den arren, kualifikazioa bi dimentsio ezberdinetan ulertuko dugu.

- Esleitutako lanpostua behar bezala betetzen dela ziurtatzeko behar den benetako kualifikazioa: zereginak egiteko eskatzen den ezagutza da, kapitalaren kalitate-irizpideen arabera.
- Langilearen benetako kualifikazioa: Ekoizpen zehatzean beharrezkoak diren eta langileek izan dituzten ezagutzak eta lan-prozesuarekin zerikusirik ez dutenak (Freysenet, 1979, 53 or.).

Bi elementu horiek kontuan hartuta, beraz, lanpostu bakoitzaren praktikotasunera egokitzen den langile bat aurkituko litzateke, hura betetzeko gai baita. Globalizazioaren eraginez, errealitatean betetzen ez dela agerikoa da; eta, are gutxiago betetzen da emakume eta etorkin izanda.

Azken finean hezkuntza-kapitalaren eta lan-merkatuaren arteko desorekari buruz ari gara. Gauzak horrela, bizi-kalitatea hobetzeko eta, azken batean, kalitatezko enplegua lortzeko helburuarekin migrazio-prozesuak hasten dituzten pertsona immigratzaileen kasuari erantsitako zailtasunak gehitu behar zaizkio; ondorioz, batzuetan gizarte-bazterkeriako egoerak sortzen dira (Shershneva & Aragón, 2018, 44 or.).

Hain zuzen ere, egiturazko oztopo handiak daude; immigranteek lan-mugikortasunerako zailtasun handiak aurkitzen dituzte. Horregatik, lan-esparru jakin batzuetan presentzia nabarmena dute – ez kalifikatuetan, hain zuzen-. Beste hitz batzuetan, nahiz eta prestakuntza-maila handiagoa eskatzen duten lan-postuan hartzeko kualifikatuak egon, sistemak, atzerriartasun eta generoaren elementuak aintzat hartuta, sektore konkretuetan sartzen ditu eta horietatik ateratzeko aukerak urriak dira. Aitzitik, FOESA Fundazioak 2020. urtean argitaratutako txosten batean, Espainiako ekonomian langile etorkinen %75 (Iglesias & Ares, 2020, 137 or.) lan ez kualifikatuak egiten dituztela azaleratu zen. Eta ez hori bakarrik, %75 (Iglesias & Ares, 2020, 148 or.) Espainian sartu zireneko okupazio-posizio berari izaten jarraitzen duela azaltzen da.

Aurreko atalean ezarritakoarekin erlazionatuz, harrera-estatuetakoa lan-merkatuaren segmentazioa, besteak beste, bertako biztanleek piramidearen oinarrian dauden lanpostuak betetzeari uko egiten diotelako sortzen da- kualifikazio maila gutxien eskatzen dutenak, alegia-; herrialdearen garapen-maila oinarri izanik eskaintzen dituzten baldintza txarregatik eta gizarte-estatusari kalte egiten diotelako, bizi-baldintzen hobekuntza ezagatik (Thayer, 2011, 84or.). Horrela nolabaiteko homogeneotasun soziala dago biztanleriaren okupazio-itxaropenei dagokienez, behinik behin, garatutako herrialdean jatorria duten norbanakoek zehazten baitute; horrek aukeren berdintasuna urratzen duela agerikoa da, estatuko nazionalak nahi ez dituzten lanbideak atzeritarrek hartu behar baitituzte.

Aitzitik, Eurostaten arabera, 2011n, Espainian, nazionalen %31 beren hezkuntza-mailatik beherako enplegua zuten; aldi berean, etorkinen %58 gainkualifikazioa jasaten zuten. Bi taldeen arteko ezberdintasuna nabaria da puntu honetan jorratzen ari den arazoaren hedadura irudikatzeko (Eurostat, 2011).

Ulertu daiteke, beraz, lan-segregazioa eta gainkualifikazioa harrera estatuko egitura sozio-ekonomikoak sistematizatzen duela. Badaude, ordea, okupazio-segmentazioa eta gainkualifikazioa diskriminazioaren ondorio ez dela defendatzen dutenak. Beste arrazoi batzuetan oinarritzen dira fenomenoak azaltzeko: lan-merkatuan euren presentzia bermatzeko euren kualifikaziotik beherako giza-kapitala behar duten lanpostuak onartzea; jatorrizko herrialdeetan eskuratutako giza-kapitalaren transferigarritasun-maila txikia izatea; aldi baterako laneko enpresen bidez kontratatzea eta behin-behinekotasunak markatutako sektoreetan presentzia handia izatea; titulazioak homologatzeko zailtasuna; familia-ardurekin zerikusia duten baldintzen eragin

negatiboa; hizkuntza. Interpretazio horrek, ordea, migratutako pertsonen gain zuzenean eragiten duen fenomenoaren erantzukizuna lekualdatu nahi dela dirudi; hau da, harrerako sistemak duen hutsune eta akats bat dela ulertzetik urruti, immigranteen ezaugarriengatik eta hartzen dituzten erabakiengatik ematen dela interpretatu liteke. Hala ere, bi faktoreen arteko ondorioa dela hauteman daiteke; hau da garatutako herrialdeen egituraren funtzionamenduaren ondorioa da eta immigrante bakoitzaren egoera pertsonalaren ondorioa.

Eta migrazio-fluxuen feminizazioari aipamen zehatza egite aldera, mundu-mailako produkzio- eta ugalketa-harremanetan izandako aldaketen emaitza dela aipatu daiteke. Izan ere, bertako emakumeek okupatu nahi ez dituzten generoaren arabera bereizitako lan-jarduerak betetzeko eskari geldiezina dago. Horregatik, emakumeak erakarri eta ordaindutako zaintza-lanetan, esportaziorako enpresa multinazionalen eta zerbitzuen sektoreko zeregin deskalifikatuenetan txertatu dira.

Azpimarratu beharra dago, era berean, faktore guztiek modu berezian eragiten diotela emakume migratzaileari: gizarte-klaseak, etnizitateak, nazionalitateak, egoera zibilak eta bere genero-arau eta -kulturak, adibidez (Oso & Parella, 2012, 26 or.). Izan ere, emakumeak genero elementuak elkar-identifikatzen baditu ere, gainerakoek elkar-aldendu ditzake, ondoren aztertuko dugunez. Hori dela-eta, emakume bakoitzaren bereizgarritasunak behatuta, harrera estatuan izango duen bizipena ezberdina izango da. Beraz, harrera estatuan, generoa, gizarte-klasea eta etnizitatearekin batera, emakume immigrantearen lan-txertatzea azaltzeko elementu erabakigarriak izango dira; baliabide eta aukeratarako sarbide desberdina izango dute, botere-harreman asimetrikoen testuinguruan. Horrela, gizarte hartzaile baten aurreiritzi eta estereotipoei aurre egin behar diete, lan-nitxo oso zehatzetan kokatzen baitituzte (Parella, 2005, 104 or.). Hortaz, emakume etorkinak lanbide-kategoria zehatzetan kokatu eta horietan espezializatzen dira, prekaritatearekin eta zaugarritasunarekin zuzenean lotura dutenak (Barragán, 2017, 111-112 or.).

Arestian aipatutako guztia laburbiltze aldera, beraz, genero eta atzerriartasun elementuekin batera, beste ezaugarri batzuk behatuta, mendebaldeko estatuak nazionalak hartu nahi ez dituzten lanbideak esleitzen dizkiete atzeritarrei; bigarren-mailako lanak dituzte nahiz eta beste lan kualifikatuago bat izateko hezkuntza-maila izan. Hortaz, emakumeen kasuan, fenomenoaz azaltzen duen diskriminazio hirukoitza jasotzen dute: emakumeak, etorkinak eta langileak. Horregatik, kualifikaziorik behar ez duten lan-merkatuko nitxo feminizatuetan kokatzen dira; hain zuzen ere, Espainiako okupazio-egituraren azken maila osatzen dutenetan.

Gauzak honela, Espainian, emakume migratzaileen gizarteratze sozioekonomikoaren gaia gainditu gabe dagoela aztertzeko, lanbide-nitxo garrantzitsuena aztertuko dira hurrengo puntuan.

7. Lanbide-nitxoa: ordaindutako zaintza- eta etxeko-lanak

Atal honetan IX. taulan azaldu ezin izan den lan-segregazioaren azterketa garatuko da, nazioartean zein Espainia harrera estatu moduan duten emakume immigrante langileei gehien esleitzen zaien lanbidearen bitartez; zaintza lanak eta etxeko lanen sektorea, hain zuzen ere.

7.1 Argibide batzuk

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago, gizarteak historikoki etxeko eta zaintza lanak egitea – ez kualifikatu moduan ulertuta- langile jakin bati esleitu dizkiola; emakumeari, hain zuzen. Izan ere, historian zehar emakumeei, printzipioz egoera biologikoa aintzat hartuta, etxeko azpiegitura-lanak egiteko -garbiketa, plantxa, sukaldea, etab.- eta beste pertsona batzuen zaintzaz -haurrak, adinekoak, etab.- arduratzeko gaitasuna izan dutela ulertu da (Parella, 2005, 115 or.). Generoa gizarte-eraikuntza dela onartu denetik, ordea, ezinezkoa da ideia hau sostengatzen jarraitzea. Hala ere, errealitateak erakusten du, egun ere, sistematikoki emakumeen gain ezartzen den jarduera dela.

Hala ere, XX. mendeko bigarren erdialdetik aurrera, herrialde garatuetan, lanaren sexu-banaketa eta espazio publiko-pribatuen zatiketa soziala ezaugarri zituen zainketen gizarte-antolaketa aurreko ereduak porrot egin du: biztanleriaren zahartzeak, familia-egituraren aldaketa eta emakumeen rol eta aspirazio-aldaketak horren eragileak dira, beste batzuen artean. Herrialde garatuetako paradigma berri honen aurrean, beraz, zaintza-lan horiek familiako emakumeen ardura izatetik kanpoko pertsonari esleitu behar izan zaizkie; horregatik, egun, neurri handi batean emakume etorkinek okupatzen duten Espainiako etxeko lanaren eta zainketen sektorea, ondoren kuantitatiboki aztertuko den moduan.

Fenomeno horrek gaur egungo immigrazioaren feminizazio-prozesuaren paradigmatako bat gorpuzten du. Hain zuzen ere, migrazioak globalizazioaren eta ongizate-estatuaren eraldaketaren testuinguruan, zaintza-kate globalak eratu dira, nazioz gaindikoak direnak. Eguneroko bizitzari eusteko helburuarekin eratu eta zaintza-lanak etxe batetik bestera transferitzen dira, botere-ardatzen arabera -behin eta berriro aipatu dugun generoa, etnia, klase soziala eta jatorria, beste batzuen artea-. Generoa eta atzerriartasuna oinarritzko elementua izanik, gizonen eta emakumeek presentzia eta egiteko desberdina dute kateetan; emakume immigranteek aktiboki parte hartzen duten bitartean, gizonen honen subjektu onuradunak izateko joera dute (Orozco, 2007, 4-5 or.). Horrela, gaur egun, nazioarteko migratzaileak diren etxeko langile guztien % 73,4 emakumeak dira (Lanaren Nazioarteko Erakundea –hemendik aurrera LANE-, 2015, 5 or.).

Egoera berri honen ezaugarriak modu orokorrean aurreratze aldera, kontuan izanda ondoren hauek baieztatzen dituzten datuak emango direla, honako hauek dira: erregulazio oso malgua, lan-baldintza oso prekarioak -lan-egonkortasunik eta -bermerik eza, informaltasun handia- eta, are gehiago, langileak muturreko zaurgarritasun-egoeran kokatzea, arrisku eta kalteen eraginpean egoteko aukera handiagoa baitute.

Lan-nitxo hau ezaugarritzen jarraitu aurretik, ordea, zaintza lanak definitzea ezinbestekoa deritzogu. Horretarako LANE, 2013. urtean, lanaren estatistikei, okupazioari eta lan-indarraren azpierabilerari buruzko ebazpenean ezarri zuen argibide bati aipamena egingo diogu. Honek zera ezartzen du: zainketa-lanak gainjarritako bi jarduera mota biltzen dituela; zaintza zuzeneko, pertsonal eta erlazionaleko jarduerak, hala nola haurtxo bati jaten ematea edo gaixo dagoena zaintzea; eta zeharkako zaintza-jarduerak, hala nola janaria prestatzea eta garbitzea, horrek dakartzak jarduera guztiekin batera. Bestalde, ordaindu gabeko zainketa lanen eta ordaindutakoen arteko ezberdinketa ezarri zuen (LANE, 2013). Lehenengo sailkapenari dagokionez, lan honetan, zaintza lanak osorik ulertuko ditugu; hau da, biak kontuan izango dira. Bestetik, ordaindutako zaintza-lanei buruz arituko gara. Ordaindu gabeko – eta oraindik, emakumeei esleitutako- lanak egungo gizarteak duen erronka handia dela ezin da ahaztu; ordaindu gabeko eta, beraz, aitortu gabeko lana baita gizartearen begietan.

Amaitzeko, azken zehaztapen bat egin beharra dago; zaintza- eta etxeko-lanetan barneko eta kanpoko langileen arteko -ezberdintasuna da lehenengoek lan egiten duten etxean lo egiten dutela- eta orduka lan egiten duten langileen artean. Lan honetan elkarrekin aztertuko dira, atal batzuk salbu, ezaugarri horrek ez baitu azterketaren ondorioa aldatuko.

Gogorarazi beharra dago, hauek aurrera eramaten dituzten lanen artean ohikoena eta garrantzitsuena izateagatik aukeratu dela sektore hau aztertzea. Aitortu beharra dago, badaudela, -generoa eta atzerritartasuna abiapuntu, noski- oso interesgarriak eta bereziak diren sektore batzuk; hala nola, nekazaritza – Huelvako sasoikako langile magrebtarren kasua (Echajri Amhaouch, 2021)- eta prostituzioa - %92 emakume eta neska immigranteak dira (Emakumearen institutua, 2005, 63-87 or.)-.


Espazio eta orri falta dela-eta, Espainiako zaintza-lanen sektorea ezaugarritzen duten elementuak aztertuko dira ondoren, banan-banan. Lehenik eta behin, langileen profilak ikertuko ditugu.

7.2 Langileen profilak

7.2.1 Generoa

Ikuspegi globaletik hasi eta zehaztasunak ematen joango gara; zaintza-lanak sektore-feminizatuan kokatzen direla adierazteko ondorengo grafikoa aztertuko dugu. Gero, sektoreak Espainian duen tamaina eta garrantzia azaleratzen duten datuak emango dira. Abiapuntua hurrengoa izango da, beraz; Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuen arabera, Espainian, 2022ko lehenengo hiruhilekoan 542.600 pertsona baino gehiago aritzen dira etxeko lanetan eta familia partikularrek erabiltzen dituzten zaintzetan (EIN, BAI, 2022) Horren banaketa ondorengoa da:

VIII. GRAFIKOA: 2022KO 1. HIRUHILABETEAN ESPAINIAN ZAINZA-LANETAN DABILTZAN OKUPATUAK, SEXUKA



Iturria: EIN. BAI.

Laneko 5. Puntuan aztertutako taula gogoan izanda, agerikoa da lanbide horretara dedikatzen diren emakumeen eta gizonezkoen kopuruen arteko ezberdintasuna nabaria dela; hain zuzen ere, emakumeek sektorearen %90 hartzen duten bitartean, gizonezkoek %10 besterik ez dute hartzen. Kopuru zehatzei erreferentzia egite aldera, egun, zaintza lanetan 487.100 dira emakumeak eta 55.500 gizonezkoak (EIN, BAI, 2022). Datu hauek, arestian aipatu den ideiarekin irudi argia dira; hain zuzen ere, zaintza lanak emakumeei esleitzen zaizkiela eta, beraz, egitura patriarkatuak dirauela.

Gainera, ideia hau sendotzeko sektorearen barnean bakoitzak egiten dituen jardueri eta lan-baldintzei erreparatu dakieke: emakumeek pertsonak zaintzen dituzte eta etxeak garbitzen dituzte; gizonezkoak, ordea, atezainak, zaindariak, maiordomoak edo lorezainak dira (Marcos Barba, 2021, 17or.). Agerikoa da, beraz, emakumeei esleitutako lanbidea dela, eta salbuespenez horretan lan egiten duten gizonezkoek lanbide atseginoak dituztela.

Hala ere, arestian aipatutako mendebaldeko gizartean gertatutako emakumeen soldatapeko merkatu-txertatzea buruan izanik, emakume hauei buruzko xehetasun gehiago ematea ezinbestekoa da. Izan ere, familiaren egituraren aldaketarekin, gero eta gehiagok eskatzen dituzte zaintza lanak egiteko langileak. Joera hazkor honen harira, aipatu beharra dago 2017ko Eurostaten datuen arabera, Espainiako lan-merkatuaren %3,3 zaintza-lanek hartzen zutela; Zipren %3,4; Italian %3,2; Portugalen %2,2; eta, gainerako estatuetan, ordea, %0,5 baino gutxiago (EUROSTAT). Datuek agerian uzten dute zaintza lanak delegatzearen alde, batez ere, Hegoaldeko Europako herrialdeek egiten dutela. Ildo beretik, gainera, Europar Batasuneko etxeko langile guztien %28 (Marcos Barba, 2021, 18 or.) Espainian egiten du lan.


Agerikoa da, beraz, nazioarteko ikuspuntu orokorrago batetik, zaintza-lanak sektore feminizatuan kokatzen direla eta Espainian benetan handia eta garrantzitsua dela; izan ere, Europar Batasuneko gainerakoekin alderatuta, zaintza lanen sektorea ia sei aldiz handiagoa baita.

7.2.2 Atzerritartasuna

Sektorea ezaugarritzen jarraitzeko, azpimarratu beharra dago Espainian emakume migratzaileek okupatzen dutela gehienbat; hain zuzen ere, etxeko langileen erdia baino gehiago migratzaileak dira: hauen %57 (EIN, BAI, 2019) eta 307.800 emakume, alegia. Horrela, IX. taulan aurkeztutako atzerritaren eta estatuko emakumeen sektoreka dagoen oreka apurtzen da; beste hitz batzuetan, aurreko figuran bi taldeek zerbitzuetan %88 inguruko presentzia zuten, parekoa. Hala ere, zaintza-lanetan zentratuta, datuek adierazten dute migratzaileak direla gehienak. Hortaz, aurreko puntuan deskribatutako generoagatiko eta atzerritara izanagatiko segregazioaren adierazle izan liteke hori.

Ordea, immigrazioaren elementua parte txikiagotan banatu genezake, jatorriaren arabera lan banaketa ere gertatzen dela aztertzeko. Ordea, ezer baino lehen aipatu beharra dago emakume etorkinen kopuruak gora egiten duela ezkutuko ekonomian; sektore honetan oso ohikoa den egoera irregularrean dauden eta lan egiteko baimenik ez dutenen kasua, alegia (Administración General del Estado, 2020) Azken finean, gizarte segurantzaren altan emanda ez daudenen kasuei buruz ari gara. Horrela, ondoren aurkeztutako estatuko datu hauen barne ez dira sartzen. Beraz, datuak egoera orokorrean irudikatzeko erabiliko ditugu, baina ezin ditugu sistemaren itzalean bizi diren emakumeen ahaztu.

IX. GRAFIKOA: 2019AN ETXEKO LANGILEEN SISTEMA BEREZIAN LANEAN ALTA EMANDA GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO LANGILE ATZERRITARREN BATAZBESTEKOA, NAZIONALITATEKO HERRIALDEAREN ARABERA



Iturria: EIN. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa – hemendik aurrera EEZP-.

Grafikoari lehenengo begirada bota ondoren, agerikoa da kontinenteen banaketan ezberdintasun nabariak daudela. Amerikan jatorria dutenek, etxeko-langileen sektorearen ia %50 hartzen dute; Europarrek jarraitzen dute sektorearen %34,71 okupatzen; Afrika eta Asiatik datozenek %8 eta

%10 bitartean partehartzen dute sektorean; azkenik, Ozeaniakoek eta apatriden partaidetza ia ikusezina da.

Kontinente bakoitzetik nagusienak diren herrialdeak ikertzea ere interesgarria litzateke; horrela, Amerikatik datozenen artean, Paraguain, Hondurasen eta Bolivian jaioterria dutenek etxeko langile amerikar guztien %50,11 hartzen dute; estatubatuarrek, ordea, ia %3. Hauteman daiteke, beraz, Hego eta Amerika erdialdekoei buruz ari garela, eta ez ordea Ipar Amerikarrei buruz. Europako etxeko-langileetatik %75,89 Europar Batasunean dute jatorria; Afrikako etxeko langileen %55 marokozkoak dira; eta Asiako langileen artean %68,79 Filipinetatik dator.

Aurreko bi puntuetan deskribatutakoaren arabera, beraz, Espainian batez ere Hego eta Amerika Erdialdeko emakumeentzako nitxoak da zaintza eta etxeko lanen sektorea. Honek atal orokorrean deskribatutako ugariena den Espainiara datorren emakume migratuaren profilarekin bat egiten duela agerikoa da. Uler liteke, beraz, globalizazioak ekarri duen zaintza-lanen krisiagatik, emakume hauek sektore konkretu honetara lan egiteko datozela. Horrela, euren jatorriko egoera hobetzea lortuko dutela uste baitute.

7.2. 3: Adina eta hezkuntza maila

Zaintza-lanetan dabilzan emakume atzerritarren adina eta hezkuntza lanari aipamen txikia egitea garrantzitsua deritzogu bi arrazoiengatik; alde batetik, lehenengo atalean emakume immigrantearen profil orokorrarekin bat datorren edo ez behatzeko eta, bestetik, berriro ere, Espainiako sektore hau lanbide-nitxoak dela nabarmendu eta mahaigaineratzeko.

Aztergai dugun sektoreko langileen 2020. urteko batezbesteko adina 35,57 urte dira. Laneko 4.2 atalean aztertu da Espainiako emakume migratzaileen batezbesteko adina 33 urte ingurukoa dela. Bi datuak aztertuta, agerikoa da, ez dela aldaketa nabaririk ematen zaintza-lanen sektorean dabilzan emakumeak ezaugarritzen ditugunean. Gainera migrazio-prozesua lan arrazoiengatik hasten duten susmoa indartzen da, batezbesteko urteak aztertuta lan egiteko momentuan dauden emakume gazteak baitira.

Bestalde, ikasketa mailari gagozkiolarik, 2020an Emakume Progresisten Federazioak egin zuen ikerketan, etxeko langile diren 110 emakume migratzaileari egindako inkesten emaitzak ondorengoak izan ziren: %44,5ek goi-mailako ikasketak zituzten (batxilergokoak, goi mailakoak edo LHkoak); %24,5ek unibertsitate-ikasketak; %24,5ek derrigorrezko ikasketak; %2,7k bakarrik ez zuen ikasketarik (Federación de Mujeres progresistas Madrid, 2021). Berriro ere, VII. taulan deskribatutako emakume migratzailearen profil orokorrarekin bat egiten dute. Hau da, goi- eta bigarren-mailako ikasketak dituzten emakumeen dira zaintza lanetan dabilzanak. Agerian uzten du, mendebaldeko gizartearen pertzepzioa okerra dela; hau da, biztanleria migratzaileak prestakuntza akademiko gutxiago duen ideia deseraiketzen da datu hauen bitartez.

Gainera, 6. puntuan landutako gain kualifikazioaren praktikotasuna aztertzeko adibide aparta da sektore hau. Izan ere, lanpostuak eskatzen duen kualifikazioa eta emakume immigrante langileen

benetan daukatenaren artean erabateko desoreka dago. Aitzitik, hezkuntza-mailagatik, emakume hauek kualifikazio altuagoa eskatzen duten sektoreetan koka zitezkeen. Hala ere, badirudi, Espainiako sistemak ez dituela hauek aintzat hartzen, eta beste aukerarik eman gabe zaintza-lanak egiten ipintzen dituela. Horren atzean dagoen kutsu arrazista agerikoa da, emakume immigranteen gain dauden estereotipoak indartzen duena.

Atal honetan aztertutakoa laburbiltze aldera, beraz, ondorengo baiezta dezakegu: lehenik eta behin, ordaindutako etxeko lanetan dabilzanak, zalantzarik gabe, emakumeak dira, hau erabat feminizatutako sektorea izanik; bigarrenik, globalizazioagatik eta mendebaldeko emakumeen lanera sartzearekin, nazioz gairik zaindiko zaintza-kateak eratu eta, immigranteak diren emakumeei egotzi zaie zaintza-lanen sektorea, lanbide-nitxo bilakatuz; bestalde, 4. atalean Espainian dagoen emakume migratzailearen profilaren deskribapen orokorra eta zaintza-lanen sektorean dabilzan emakumeen profilak bat datoz. Hain zuzen ere profil hedatuena Amerikan jatorria duten, hezkuntza maila altuko emakume gazteak dira zaintza lanetan dabilzanak, lan-segregazioaren biktima argiak.

Eta profil hau Espainian dagoen emakume immigrante langilearen profilarekin bat datorrenez, langile hauek estatuko ekonomian duen garrantzia agerian uzten da. Estatuko populazio migratu osoaren %50 emakumeak direla abiapuntu, zaintza lanetan dabilzan %90 emakumeen artean %67 migranteak dira; horrela, egiten duten ekarpena esanguratsua dela agerikoa da.

Azken finean, sistema-kapitalista-heteropatriarkala oinarrian, bi elementu dira egoera hau azaltzen dutenak: alde batetik, familia enplegatzailea, Ongizate Estatuak etxea zaintzeko eta mantentzeko dituen beharrei aurre egin behar diena; eta, bestetik, jatorri etorkineko etxeko langilea, ordainsari ekonomiko baten truke, bizitza espektatibak hobetzeko hauentzako lan egiten duena. Beraz, zaintza- eta etxeko-lanetan dabilzan langileek profil eta ezaugarri hain konkrituak edukita, Espainiako ordenamenduak sektoreari ematen dion erregulazioari buruzko zalantzak sortzen dira; eta hortik abiatuta, praktikotasunean emakume hauek dituzten lan- eta bizitza-baldintzei buruzkoak. Hurrengo atalean bi itaunei erantzuten saiatuko gara.

7.3 Zaintza- eta etxeko-lanak arautzeko Espainiako ordenamenduko tresna legalak eta lan-baldintzak

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago, Espainiak pasa den ekainaren 9an berretsi zuela Lanaren Nazioarteko Erakundeko Etxeko Langileentzako Lan Dezenteari buruzko 189. Hitzarmena (Euskal Ekonomiaren Kazeta, 2022). Honek, etxeko langileen lanari buruzko gutxienezko adostasuna planteatzen du, sektore horri abusua eta esplotazioa eragozteko neurriak ezartzeko. Hura berrestea garrantzitsua da, historikoki formaltasun gutxiko eta legeria ahuleko sektorea izan baita. Zaintza langileen eskubideen aldeko arrera pausua bada ere, Espainiako gobernuak urteak behar izan ditu ezinbestekoa den Hitzarmen hau onartzeko; horrela langileen babesgabezia egoera denboran hedatu da.

Edozein modutan, gaur eguneko Espainiako ordenamenduak lanaren objektua dena arautzeko bi Lege nagusi ditu, arestian aipatutako nazioarteko arauaz gain: Etxeko enpleguaren sektorea azaroaren 14ko 1620/2011 Errege Dekretua, familia- etxeko zerbitzuaren izaera bereziko lan-harremana jasotzen duena; 29/2012 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, Sistema Berezian, etxeko langileentzako eta izaera ekonomiko eta sozialeko beste neurri batzuetako kudeaketa eta gizarte-babesa hobetzeko. Azpimarratu beharra dago, 189. Hitzarmena berretsi berria dagoenez, errealitatean efekturik sortu ez dituela. Horrela, haren aplikazioa azterketatik at kokatuko dugu.

Ondoren, Lege hauek etxeko enpleguari buruzko neurri garrantzitsuenak labur zerrendatuko ditugu, ondoren hauek errealitatean betetzen diren edo ez aztertzeke.

- Gizarte Segurantzari laneko alta eman beharra, kontratatzen dutenek izapidetu beharrekoa, lanaldia eta soldata erreala adierazita.
- Idatzizko kontratuaren derrigortasuna. Lan-baldintza guztiak bildu behar ditu: lanaldia, ordutegia, soldata, oporrak, beste batzuen artean.
- Soldata-baldintzak lanbide arteko gutxieneko soldatara egokitu behar dira: 2022. urtean 1000€⁵ hilean, eta aparte bi ordainsari.
- Gainerako langileei aitortutako ordaindutako baimen berberak izateko eskubidea.
- Gaixotasun arruntagatiko edo lanekoa ez den istripuagatiko bajaran eskubidea eta laneko gaixotasunagatiko edo lan-istripuagatiko bajaran eskubidea.
- Astean 40 orduko lanaldia izateko eskubidea.
- Lanaldien arteko atsedeen-orduak: 12 ordukoak dira kanpoko lana duten emakumeen kasuan eta 10 ordukoak barne-erregimeneko langileen kasuan.
- Urtean ordaindutako 30 opor-egun hartzeko eskubidea.

Nahiz eta modu orokorrean planteatu, xedapen horiek aztertuta, hauteman daiteke etxeko langileak oinarrizko lan-eskubide batzuetatik kanpo uzten dituztela; adibidez, ez dute langabezia-prestaziorik jasotzeko eskubiderik. Hori, Etxeko enplegua eta zainketak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko lanbideetatik at eta lan harreman berezitat hartzen delako gertatzen da. Gainera, etxeko langileen kontratazioa, hein handi batean, enplegatzaileen beharren arabera da. Horren ondorioz, errealitatean, kontratazioa oso informala da; hain zuzen ere, legedian gutxieneko eta bete beharreko baldintzak ezarrita egon arren, negoziatioa enplegu emaileen behar eta baldintza partikularren arabera egiten da.

Ondoren, egoera sakonago deskribatuko dugu lanaren esparruan oinarrizkoak diren elementuak aztertuta.

⁵ 152/2022 Errege Dekretua, otsailaren 22koa, 2022rako lanbide arteko gutxieneko soldata finkatzen duena. <https://www.boe.es/boe/dias/2022/02/23/pdfs/BOE-A-2022-2851.pdf>

7.3.1 Kontratazioa eta Gizarte Segurantzza

Sektore honetan, historikoki, aldi baterako kontratuak eta familiek etxeko zerbitzuak behar dituzten momentuko akordioak nagusitu dira. Aitzitik, 2012tik 2015era aldi baterako kontratuak ziren ohikoenak; hala ere, 2012an kontratu mugagabeak zertxobait gehitu ziren legeria berriaren eragin integratzailearen ondorioz (Cáceres & Lebrusán, 2017, 31 or.). Momentuko irudiak, ordea, beste egoera bat deskribatzen du.

Gaur eguneko errealitateari gagozkiolarik, Estatistikako Institutu Nazionalako 2022. urteko lehenengo hilabeteko datuei erreparatuta, aipatu beharra dago zaintza-lanetan dabiltzanen %20,58 aldi baterako kontratua dutela eta gainerako % 79,42 kontratu mugagabea edo egoera irregularrean dago – ez da existitzen horien arteko banaketari buruzko datu ofizialik (EIN)-. Dena den, ikuspegi orokor bat izateko, Gizarte Segurantzako estatistikak eta Estatistikako Institutu nazionalaren arteko datuen aldea aztertuta akordio informalaren kopuruari hurrenkera egin diezaiokegu. Horrela, 2022. urtean etxeko langile moduan soilik 155.190,05 (Gizarte Segurantzako Estatistika, 2022) emakume etorkin daude altan emanda eta, ordea 307.800 dira erregimen horretan okupatu bezala ageri diren emakume immigranteak; aipatu daiteke hortaz emakume eta immigrante diren etxeko langileen %50 egoera irregularrean daudela. Itzalean dagoen errealitatea denez, ezin da honen benetako tamaina ezagutu; datu hauek hurbilketa egiteko balio dute. Beraz, errealitatean zifrak aldatu daitezke. Bestalde, soilik %20 du kontratu mugagabea. Esparruaren ziurgabetasuna agerikoa da, beraz.

Aldi baterako kontratuak dituztenen egoera sakonago aztertzea interesgarria deritzogu, sektore honen ezegonkortasuna mahaigaineratzeko.

XI. TAULA : 2022KO LEHENENGO HIRUHILABETEKO ETXEKO LANGILEEN ALDI BATERAKO KONTRATUEN LUZEERA

	1-2 urte	2-3 urte	3 urte baino gehiago	Ez daki, 1 hile baino gutxiago	Ez daki, 1 hile baino gehiago	Ez daki
Kopurua	5.200	400	1600	3900	103.900	11.200
Totalarekiko%	4,12	0,32	1,27	3,09	82,33	8,87

Iturria: EIN. EEZP.

Aldi baterako kontratuen esparruan, ziurtasunik ez duten emakume langileak dira ugarietak, %94,29 hain zuzen ere. Soilik %5,71 urte 1 eta 3 urte bitarteko kontratazioa du. Hortaz, esan

daiteke aldi baterako kontratuen artean, sektoreko informaltasuna eta kontratazio irregularra direla nagusi. Sektorearen ezegonkortasuna agerian uzten dute aurreko datuek.

Bestalde, Legeak ezartzen duen Gizarte Segurantzaren laneko alta eman beharri gagozkiolarik, arestian azaldu dugun modua, sektore honetan okupatuta daudenen %50 soilik dago altan emanda. Aipatu beharra dago, emakume immigrante okupatu guztien eta Gizarte Segurantzaren alta emanda daudenen artean %14 (EIN. Gizarte Segurantzaren) inguruko ezberdintasuna dagoela; hau da, egoera orokorrean irregularitate txikiagoa dela behatu daiteke. Horrek sektore honen ziurgabetasuna azaleratzen du. Legeak ezartzen dituen baldintza orokorrak betetzetik urruti, ugariak dira kontratu gabeko eta, beraz, Gizarte Segurantzaren alta eman gabe dauden zaintza lanetan dabilen emakume langileen kasuak. Hau sektoreak enplegatzaileak uko egin izanagatik ematen da, zerbitzu puntualak direla uzte baitute. Eta ez hori bakarrik, askotan, langileak berak uko egin diezaioke afiliazioa arrazoi ekonomikoengatik ez konpentsatzeagatik (Marcos Barba, 2021, 23or.).

7.3.2 Lanaldiak

Emakumeen bizi-kalitatean eragin handiena duen ezaugarrietako bat da lan egiten duten ordu kopurua; izan ere, horien arabera izango dira diru-sarrerak eta euren denboraren eta uztartzeko aukeren kontrola. Ondoren aztertuko den moduan, sektore honetan lanaldi oso laburrak eta oso luzeak behatu daitezke.

XII . TAULA: 2022KO LEHENENGO HIRUHILABETEKO ETXEKO LANGILEEN LANALDI MOTAK

	Langile kopurua	%
Lanaldi osoa	197.800	40,6
Lanaldi partziala	289.30	59,4

Iturria: EIN. EEZP.


Oso feminizatuta dauden beste enplegu batzuetan bezala, partzialtasuna, gehienetan borondaterik gabekoa, etengabea da sektore honetan ere. Taula aztertuta, lanaldi partzialak ugariagoak direla behatu daiteke; hain zuzen ere, emakume langileen %60 lanaldi partziala du. Kezkagarriagoa da, ordea, emakume horien %65 nahi gabeko partzialtasuna jasaten dutela 2019ko Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera (Marcos Barba, 2021, 23or.).

Aipatu beharra dago, epigrafe honetan kanpoko eta barneko langileen egoerak banatuta aztertzeke beharra dagoela, kontrakoak diren bi errealitate marrazteko.

Gauzak horrela, zaintzako langile guztien %7,5 inguruk barneko langile gisa jarduten du. Horrela, printzipioz, lanaldi efektiboa astean 45 ordukoa izan beharko litzateke; hala ere, emakumeen ehuneko handi batek adierazten du askoz lanaldi luzeagoak dituela. 10etik 1ek baino gehiagok 61 ordu baino gehiago lan egiten ditu astean, eta %7,4k 71 ordu baino gehiago (Marcos Barba, 2021, 22 or.). Eta ez hori bakarrik, lan ordu luze horiei malgutasuna ere gehitu behar zaie. Hau da,

enplegatzaileen etxean bizi direnez, langile askok lanalditik kanpoko eskakizunak izaten dituzte, nahiz eta atsedenerako denbora lege bitartez arautua egon.

X. GRAFIKOA: 2022KO LEHENENGO ETXEKO LANGILEEK EGINDAKO ORDU KOPURUEN BANAKETA



Iturria: EIN. EEZP.

Beste muturrean, lan-intentsitate orokor txikia dugu, lanaldi partzialean eta ordukako lanaldian eman daitekeena. Aitzitik, %36,28 astean 20 ordu baino gutxiago egiten ditu. Emakume langile gehienek nahiago dituzten modalitateak izan ohi dira lan-bizitza eta familia-kargak uztartzeko aukera ematen baitie. Hala ere, soldatei, atsedenei, Gizarte Segurantzako afiliatioari eta abarri buruzko abusuak jasaten jarraitzen dituzte; beste arrazoi batzuen artean sektorea ezagutzen ez dutelako gertatzen da hori, batez ere herrialdean denbora gutxi daramaten etorkinen kasuan (Cruz, Lozano & Aguilar, 2010, 88-89 or.). Era berean, egoera honek ziurgabetasuna sortu dezake, lan egiteko ordu gutxi baitira eta beste diru iturriak bilatzeko beharra baitute.

7.3.3 Soldatak

Lehenik eta behin, azpimarratu beharra dago sektoreko informaltasuna dela eta, zaila da zaintza lanetan dabilzan langileen soldata zehatza jakitea. Bestalde, Legeak lanbide arteko gutxiengo soldata beheko mugatzat ezartzen duela gogorarazi beharra dago. Eta estatuko azkeneko datu ofizialak 2020. urtekoak direnez, urte horretakoa 950 eurokoa⁶ izan zela argitu beharra dago.

⁶ 231/2020 Errege Dekretua, otsailaren 4koa, 2020rako lanbide arteko gutxiengo soldata finkatzen duena.

XI. GRAFIKOA: 2020KO BATEZBESTEKO SOLDATAK JARDUERA MOTAREN ARABERA



Iturria: EIN.

Grafikoa agerikoa da T kategoria gorpuzten duten zaintza langileek, gainerako kategoriekin alderatuta soldata txikiagoa jasotzen dutela. Aitzitik, jarduera mota guztien batezbesteko soldata 1953,49 eurokoa izanik, etxeko jardueretan dabilen emakumeek %48,95 gutxiago irabazten dute, 997,34 eurokoa baita euren batezbesteko soldata. Hain zuzen ere, 2020. urtean gainerako lanbidekoek 10 euro eskuratzen zituztenean, aztergai dugun sektoreko langileek erdia jasotzen zuten; 5,10 euro, alegia. Aipatu beharra dago, ordea, kontratu motaren arabera bataz besteko soldatak aztertzean, batezbesteko soldata orokorrarekin alderatuta ezberdintasuna ez dela hain nabaria; %23 eta %35 lanaldi osoan eta partzialan, hurrenez hurren (EIN, 2020).

Bestalde, aparteko orduak eta aparteko ordainsariak ordaintzea ez da aurreikusten. Eta, orduka lan egiten dutenak askotan egoera irregularrean lanean daudenez, lan egiten dituzten ordu efektiboak ez

dira kontabilizatzen; horrek zailtasunak sortzen ditu hilabetearen amaieran soldata kalkulatzeko eta, akatsik balego, lan egin diren orduan frogatzeko (Berdintasun Ministerioa, 2020, 10 or.).

Soldata txikiek emakume langile asko zaugarri bihurtzen dituzte, beste gauza batzuen artea, migrazio-gastuengatik zorpetzeari aurre egin edo familiei dirua bidali behar baitiete. Are gehiago, barne-lana egiten duten emakume batzuek logela, janaria eta etxean erabiltzen dituzten zerbitzuak ordaindu behar dizkiete familiei (Reyes & Bertrán, 2020, 13 or.).

7.3.4 Zaugarritasuna eta diskriminazioa

Laneko zaugarritasun- eta diskriminazio-egoera nagusiak, lanaren abiapuntu diren hiru elementuetatik datoz; emakume, atzerritar eta etxeko langile izanagatik, hain zuzen. Diskriminazio hirukoitzaren izena erabiltzen da doktrinan fenomeno hau jorratzeko (Parella, 2007, 151 or.). Hiru elementu horietan oinarrituta, ondoren aztertuko diren supostuak gorpuzten dira.

Lege esparruari gagozkiolarik, arestian aipatu dugun etxeko lanak arautzeko Lege Organikoaren malgutasunaz eta babesgabeziak gain, Atzerritarrei buruzko Legeak ere, Urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, apirilaren 20koa 557/2011 Errege Dekretuarekin batera, zaintza lanetan dabilzan emakume immigranteen egoera larriagotzen du. Izan ere, erregularizatuta ez dauden eta paperik ez duten atzerritar langile askok etxeetako lana sisteman sartzeko zirrikitu moduan erabiltzen dute; egoera horretan, langileak bereziki ahulak dira, eta zailtasun handiagoak dituzte jazarpen- edo abusu-egoeretatik defendatzeko; hain zuzen ere, lan-baldintza duinak negoziatzeko.

Gainera, Atzerritarrei buruzko Legeak erregularizazioa lortzeko mekanismo oso zurrinak ditu; errotze familiarra, soziala eta lanekoa, hain zuzen. Azken hau aitortua izateko 6 hilabeteko lan-kontratua eta Espainian, gutxienez, 2 urteko etengabeko bizilekuaren baldintzak bete behar dituzte. Errotze soziala eskuratzeko, bestalde, urtebeteko lan kontratua eta gutxienez hiru urtetan jarraian Espainian egotea beharrezkoa da. Ez hori bakarrik; gehienetan erlazio laborala hitzeko akordio baten bitartez sortzen denez, horiek frogatzeko eta, immigrantearen egoera erregularizatzeko, ebazpen judiziala edo Lan Ikuskaritzaren administrazio-ebazpena behar da. Azken horrek, legaltasuna lortzeko prozesuaren iraupena asko luzatzen du.

Hortaz, oinarritzko babesgabezia horretan, gehiegizkoak diren baldintzak onartzeko arriskua agerikoa da: ordutegi luzeak eta ezegonkorak, soldata-diskriminazioak, istripuen edo tratu txarren arriskuak (Marcos Barba, 2021, 47or.). Horren aurrean, beraz, legegileak aurrera pausu bat eman beharko luke, hain ugariak diren supostu hauek arautu eta babestu ahal izateko.

Legezko tresnen hutsuneekin bukatzeko, azpimarratzekoa da, etxeko langile guztiak, nazionalak eta atzerritarak, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legetik kanpo daudela; gainera, sektorearen erregulazioa anbigua da erantzukizunak definitzerakoan eta erantzukizuna langilearen gain erortzen dira normalean. Zaintza lanen esparru hori arautzea ere ezinbestekoa da oraingo egoerak langileen

oinarrizko eskubideak urratu eta diskriminazioa sortzen baititu. Gainera, lanaren praktikotasuna behatuta, honek dituen karga psikologiko eta fisikoengatik, ahalik eta azkarren, babesa eman behar zaie (Marcos Barba, 2021, 54or.).

Lan arriskuen ildotik, nahiz eta oso hedatua dagoen egoera ez izan, sexu-jazarpenak eta erasoak etxeko enpleguan jasaten duten indarkerietako bat da. Horrek oinarrizko eskubideen urraketa handienetako bat dakar: sexu-askatasunerako eskubidea, intimitaterako eskubidea, duintasunerako eskubidea, sexuagatiko diskriminaziorik ez izateko eskubidea, laneko osasun eta segurtasunerako eskubidea, eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea (Federación de Mujeres progresistas Madrid, 2020, 154 or.). Arazo hori konpondu eta gainditzeko, beraz, ordenamenduak eraginkorrak diren baliabideak behar ditu izan.

Bestalde, arestian aipatzen genuen langileen negoziatzeko zailtasunen ildotik, enplegu-eskaintza, bai eta soldatak finkatzea ere, etxekoen unitateen ahalmen ekonomikoaren mende dago neurri handi batean. Horrela, tamalez, enplegu-eskatzailak hauen premia-egoeraren menpekoak dira. Oso ziurgabea da egoera eta hori dela eta, krisi-egoeren aurrean, lan-merkatuko kolektibo ahulenetako bat dira, edozein momentutan kaleratuak izan badaitezke. Horren adibide argia da 2008ko krisi ekonomikoa gertatu zena, eta COVID-19aren pandemiak eragindako egoeraren aurrean berriro errepikatu dena. Beste hitz batzuetan, sektorearen heterogeneotasunak eta izaera indibidualizatuak, eremu pribatuan, enplegu emaileen ezaugarri eta beharren araberrako lan-baldintzak ezartzea dakar, askotan langilearen oinarrizko eskubidean urratzen direlarik.

Zaurgarritasunaren adierazle argia da ere, diru eta baliabide faltagatik, etxebizitzaren elementua. Aitzitik, bi errealitate bereizi daitezke: lan egiten duten etxebizitza batean bizi diren baina beren etxea ez dagoen barneko emakumeak; logela edo etxebizitza partekatzen duten emakumeak. Lehenengoak, lan esparruaren eta bizitza pribatuaren arteko nahasmena dakar langilearentzat; gainera, askotan, logelak ez dira bertan lo egiteko modukoak, ez baitaude ondo egokituta. Partekatzearen supostuan, behatu daiteke egoera iragankorra dela; hau da, helburua dirua bakarrik edo nukleo familiarrarekin bizitzera joatea dela. Partekatzeak irauten duen bitartean, ordea, bizitza pribatuaren eskubidearen eta duintasunaren urraketa agerikoak dira (Brey, 2021, 4-6 or.).

Azkenik, etxeko langile etorkinen lan-mugikortasuna bi ezaugarriren bitartez deskribatzen da: ezegonkortasuna eta mugikortasun bertikal eskasa, hain zuzen. Hiru etapaz osatutako ibilbidea dela aipatu beharra dago: barne-erregimenaren bidez merkaturatzea; ondoren kanpo-erregimenaren edozein modalitatera igarotzea; eta, azkenean, beste jarduera-sektore batzuetarako jauzia egitea. Beraz, okupazio-progresio mailakatua da. Hala ere, oso astiro ematen den ibilbidea bat da; askotan, mugikortasuna sektore berean lan-baldintza hobetzean islatzen da, eta ez beste estatus profesionalaren sustapenean (Paniagua de la Iglesia, 2019, 187-188 or.).

Beraz, etxeko zerbitzuak erakarpen-gune gisa funtzionatzen du; emakume etorkinek dokumentazioa izan ala ez tranpolin gisa erabiltzen dute, ondoren beste okupazio batzuetara jotzeko eta sektore bereko lan-baldintzak hobetzeko. Jasotako informazioak erakusten du, ordea, etxeko sektoretik atera diren emakumeen ehuneko handi bat sektorera itzultzen direla, arrazoi familiarrengatik enplegu-galeragatik edo dokumentuak berritzeko etapan dagoenean. Orduan, adibidez, administrazio-egoera erregularizatzeko behar den denbora sartu eta bertan harrapatuta geratzen dira (Sainz, Pérez, & Olivero, 2011, 123 or.). Lan segregazioari eta gainkualifikazioari lotutako fenomeno honek emakume immigranteek zaintza lanen sektoretik ateratzeko zailtasun ugari dituztela agerian uzten du, honen bizi-baldintzak eta -aukerak hobetzen ez diren sinonimo moduan uler daitezkeenak.

Arestian aipatutakoa laburbiltze aldera, zaurgarritasuna eta babesgabezia sortzen dituzten hainbat elementu identifikatu daitezke sektore honetan: tresna legalek ematen dituzten soluzioen hutsuneak eta mugak; sektorearen izaera pribatuagatik, enplegatzaileak duen lan-baldintzen negoziazioaren boterea; etxebizitza konpartitu beharra; langileen mugikortasun eza, gainkualifikazioa eta segregazioa.

8. Ondorioa

Migrazioa prozesu konplexua da, gizarte, kultura, lurralde eta gizaki ezberdinek elkarri eragiten baitiote. Aitzitik, migratutako pertsonen berariazko ezaugarriek aukerak eta migrazio-prozesuak dakartzan arriskuak zehazten dituzte. Generoa da esperientzia honen faktore erabakigarrietako bat, jatorriko- zein harrera-estatuaren ikuspuntutik. Izan ere, gizarteak emakumeei eta gizonezkoiei ezarritako mandatuek migrazio-prozesuak modu oso berezian eta ezberdinean ezaugarritzen dituzte.

Horrengatik, historikoki doktrina zientifikoak migrazioak aztertzeko ikuspegi orokorra alde batera utzi eta generoa aintzat hartzearen garrantzia agerian utzi dugu. Izan ere, nahiz eta familiako gizonak laguntzeko emakume migratuaren estereotipoa existitu – gizonezkoaren menpekoa, alegia-, XX. mendeko bigarren erdialdetik aurrera, prozesu independenteak hasi dituzten emakumeen kopuruak gora egin du; migrazioen-feminizazioa deritzon fenomeno gertatu da. Egun gizon migratzaile beste emakume dagoenez, hauen prozesuak ikastea ezinbestekoa da.

Perspektiba orokorretik, historiako aro ezberdinetan eman diren migrazioek izaera ezberdina badute ere, XX. mendetik aurrerakoekin, zenbait elementu komun behatu daitezke egun; izan ere, hegoaldeetik iparralderako migrazioak hauteman dira -garatu gabeko edo garapen bidean dauden herrialdeetatik, garatuenera artekoak, alegia-; gehienetan, bizi- eta aukera-baldintzak hobetzeko lana bilatzeko prozesuak izan dira, herrialde garatuetako esku-lanaren eskaria asetzeko. XXI. mendean, globalizazioaren uneko migrazioetan ere horiek dira joerak. Mahaigaineratu beharra dago, gainera, migratutako pertsonen kopuruak joera hazkorra duela egun.

Harrera estatuetan, migrazio-fluxuak jasotzeko arrazoi garrantzitsuena, egitura-ekonomiko eta -sozialaren aldaketak sortutako asetu beharreko lan-eskaintza izan da. Horren adibide argia da, historikoki, familiako emakumeei egokitu zaien zaintza- eta etxeko-lanen sektorea. Hain zuzen, arestian aipatutako globalizazioa eta etxeko-lanen langile eskaria abiapuntu, zaintza-kate-globalak izenarekin ezaguna den fenomeno eman da; lan produktiboaren nazioarteko banaketa. Horrela, mendebaldeko emakumea lan-merkatu txertatu eta, datuek argi adierazten duten moduan, migratutako emakumeei egokitu zaie, hein handian, zaintza-lanen sektoreaz arduratzea. Hortaz, lanaren banaketa-sexualaren eskutik, zaintza-langileen %90 emakumeak diren heinean, immigranteentzako lan-nitxoak bilakatu da. Ildo beterik, azpimarratu beharra dago, Espainian sektoreak duen garrantzia eta tamaina, lan-merkatuaren %3,3 hartzen baitu.

Sektore honen azterketa sakona egin ondoren, nazioarteko zein Espainiako instituzio ofizialen datuen bitartez, ondorioztatu dugu, orokorrean, emakume immigranteen eta zaintza- eta etxeko-lanetan dabilzanen profilak bat datozela; hau da, eskala globalaren bitartez marraztu daitekeen emakume migratuaren irudia, zaintza lanetan gehien dabilenaren berdina da.

Hain zuzen ere, Hego Amerikan edo Amerikaren erdialdean jatorria duten 33 urte inguruko emakumeak direla behatu ahal izan dugu. Hezkuntza maila altua edo ertaina dute, Espainiako herritarren antzekoa; herrialde garatuetan hedatua dagoen estereotipoa suntsitu beharra dago hortaz, langileen %2,7 soilik baitira letragabeak. Horren ildotik, merkatuaren segmentazioaren ondorio zuzena den gainkualifikazioa jasaten dute harrera estatuetan; sistematikoki abantaila gutxien dituzten posizioetan kokatzen ditu sistemak eta euren prestakuntzarekin bat ez datozen lanbideak esleitzen dizkie. Beraz, naziokotasuna eta generoaren elementuak aintzat hartuta, zaintza-lanen sektorerantz bidaltzen ditu, nahiz eta kualifikazio gehiagoko lanak egiteko prestatuak egon. Horrela, sistemaren kutsu arrazista agerikoa da eta emakume immigranteen gain dauden estereotipoak indartzen ditu.

Egoera horren aurrean estatuak sektorea erregulatzeko 1620/2011 Lege Organikoa badu ere, agerikoa da horrek hainbat muga eta hutsune dituela; adibidez, zaintza- eta etxeko-lanetan dabilzanak Gizarte Segurantzaren eraetza orokorrean ez txertatzearekin, oinarrizkoak diren eskubideez gozatzeko aukera kentzen zaie. Eta, ez hori bakarrik, arautzen duena ere, sektorearen izaera pribatuagatik, errealitatean ez da betetzen; hain zuzen ere, Gizarte Segurantzaren alta emanda ez egoteagatik, etxeko-langileen erdia egoera irregularrean daude; enplegu-emailearen beharren arabera lan egiten dutenez, hitzezko akordioaren bitartez ezartzen dira lan-baldintzak, eta ez ordea, kontratu batekin. Era berean, lanaldiak oso luzeak edo ordutakoak izan daitezke, langilearen bizitza pribatuaren garapen osasuntsua oztopatzen dutenak. Soldatak, Espainiako lan merkatuko soldatekin alderatuta %50 baxuagoa da, zaurgarritasuna gehiago sustatzen delarik; harrera estatura heltzeko zorrak ordaintzeagatik, etxebizitza, logela edo ohea ordaintzeagatik.

Gainera, emakume hauen gain zaurgarritasuna eta besteekiko ezberdintasuna sortzen dituzten hainbat faktore behatu dira. Lehenik eta behin, Atzerriartasun Legeak egoera irregularrean daudenei

beste irtenbide bat ematen ez dienez, sektore honetan sartzea beste aukerarik ez dute; babezgabezia egoera horretan negoziatzeko ahalmenik ez dute eta eskubideak urratzen dituzten lan-baldintzak onartzeko behartuta ikusten dute euren burua. Bestalde, arrazoi berdinetatik, arau horrek lan esparruan izan dezaketen mugikortasuna eragozten du; gaitzifikazioa eta merkatu-segregazioa betikotuz. Lege-mekanismoekin bukatzeko, lan arriskuen prebentziorako legean aintzatetsiak ez egoteak, oinarrizko eskubideen urraketa argia dakar, lanaren egikaritzean osotasun-fisikoa eta -psikologikoa kolokan jartzen baitira.

Mahaigaineratu beharra dago, ikerketa hau garatzeko datu zehatzak aurkitzeko zailtasunak izan ditugula, estatuaren begietatik urruti, askotan ezkutuan ematen den fenomeno baina.

Deskribatutako babesgabezia eta ezberdintasun egoeraren aurrean, integrazio-politika bereziak planteatzeko eta diseinatzeko beharra agerikoa da, generoa eta naziootasuna abiapuntu, ezberdintasun txikiagoko lan-merkatua eraikitzeko. Hala, sentsibilizazio-neurriak hartu beharko lirateke, aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko, bereziki sektore pribatuan lan egiten duten emakumeen onuran, haiek eratzten baitute kolektibo ahulenetako bat. Ildo beretik, zaintzen antolaketa sozialari buruzko eztabaidan sakontzea egokia da, zaintzei balio handiagoa emateko eta egun dagoen egiturari buruz hausnartzeko, betiere, historian zehar lan feminizatua izan dela eta badela oinarrian izanik. Hain zuzen ere, genero-estereotipoak eta -rolak desagerrarazteko eta emakumeen eta, bereziki, egoera ahulenean dauden emakume migratzaileen bizitza hobetzeko. Pasa den ekainaren 9an berretsitako LANEren 189. Hitzarmena oinarrizko eskubideen eta sentsibilizazioaren aldeko lehen pausua izan daiteke.

9. Bibliografía

Liburuak eta aldizkariak:

Aguado Hernández, J. A., Cano Montero, F. J., & Sánchez Pérez, M. J. (2020). Segregación por género y Formación Profesional: aportaciones al debate sobre la situación actual. *Revista de Sociología de la Educación*, 13 (3).

Alcaide, J. (2007). Evolución de la población española en el siglo XX. *por provincias y comunidades autónomas*, Madrid: Fundación BBVA.

Anthias, F. (1998). Rethinking social divisions: Some notes towards theoretical framework. *The Sociological Review* (63).

Barberá, T., Dema, C. M., Estellés, S., & Devece, C. (2011). Las (des) igualdad entre hombres y mujeres en el mercado laboral: la segregación vertical y horizontal. *V international conference on industrial engineering and industrial management*.

Barragán, M. P. (2017). El trabajo doméstico y de los cuidados como “nicho laboral” para mujeres inmigrantes latinoamericanas en España. *Revista Ciencias y Humanidades*, 5(5).

Blanco Fdz. De Valderrama. Cristina. (2006) Migrazioak. Mugikortasun berriak mugitzen ari den munduan. *Ikuspegi. Inmigrazioaren Euskal Behatokia*.

Brey, E. (2021). La persistente vulnerabilidad social y residencial de las mujeres migrantes trabajadoras de hogar. *Documentación social*, (9).

Cáceres, P. & Lebrusán, I. (2017). La mujer inmigrante en el servicio doméstico: Análisis de la situación laboral e impacto de los cambios normativos. *Dirección General de Migraciones del Ministerio de Empleo y Seguridad Social Fondo Social Europeo*.

Calvillo Cisneros, J. M. (2022). Las migraciones forzadas en el siglo XXI: retos y perspectivas. *Migraciones. Nuevos retos geopolíticos, económicos y sociales*. CISDE.

Cruz, F., Lozano M. & Aguilar, M. J. (2010). Mujeres inmigrantes en el servicio doméstico. Acceso al empleo y contratación, problemática ocupacional y condiciones de vida. *Instituto de la Mujer Castilla La Mancha*.

Colomo Ugarte, J. (2001). Desarrollo, subdesarrollo y migraciones internacionales a comienzos del siglo XXI. *Espacio, Tiempo y Forma, Serie VI, Geografía*, t.14.

Echajri Amhaouch, I. (2021). Las condiciones laborales de las temporeras magrebíes en los campos de Huelva. [Revista Multidisciplinar de Estudios de Género](#).

Eurostat (2011). Migrants in the EU. A statistical portrait of the first and second generation. *Publications Office of the European Union*.

Federación de Mujeres progresistas Madrid (2020). Investigación Mujer inmigrante y empleo de hogar: situación actual, retos y propuestas.

(2021) Guía de contratación responsable en el empleo del hogar y de los cuidados.

Freyssenet, M. (1979). ¿Es posible una definición única de la cualificación?. *Sociología del trabajo*, (2).

Gutiérrez, J. M., Borré, J. R., Montero, R. A., & Mendoza, X. F. B. (2020). Migración: Contexto, impacto y desafío. Una reflexión teórica. *Revista de Ciencias Sociales*, 26(2).

Iglesias, J., Rúa, A. y Ares, A. (2020). Un arraigo sobre el alambre. La integración social de la población de origen inmigrante en España. *Fundación FOESSA*.

Jiménez, J. (2004). Realidad social de las mujeres sin techo, prostitutas, ex reclusas y drogodependientes en España. *Instituto de la Mujer. Ministerio de Igualdad de España*.

Juliano, D., & Harresiak Apurtuz. (2006). Mujeres migrantes, viajeras incansables: monográfico sobre género e inmigración = emakume migratzaileak, bidaiari akigaitzak: genero eta immigrazioari buruzko monografikoa. *Harresiak Apurtuz*.

LANE. (2013). Resolución sobre las estadísticas del trabajo, la ocupación* y la subutilización de la fuerza de trabajo Preámbulo.

_____ (2015). Estimaciones mundiales de la OIT sobre los trabajadores y las trabajadoras migrantes. Un enfoque especial sobre las trabajadoras y los trabajadores domésticos migrantes. *Departamento de Condiciones de Trabajo e Igualdad Departamento de Estadística*.

León, A. M. (2005). Teorías y conceptos asociados al estudio de las migraciones internacionales. *Trabajo social*, (7).

Magliano, M. (2007). Migración y género: La migración de mujeres bolivianas hacia Argentina en la segunda mitad del siglo XX. *Cuadernos del Sur. Historia*, (35-36).

Martínez, J. G., & Garcés, A. L. (2021). La racialización-etnica en el mercado laboral español desde un enfoque de género (la doble desigualdad sistémica: Mujer e inmigrante). *Interacción y perspectiva: Revista de Trabajo Social*, 11(1).

Martínez, M. L., Martínez, C. N., Perea, P. J. R., & Ramírez, N. V. (2019). Análisis de la segregación ocupacional por género en España y la Unión Europea (2002-2017). *Prisma Social: revista de investigación social*, (26).

Marcos Barba, L. (2021) Esenciales y sin derechos o cómo implementar el convenio 189 de la OIT para las trabajadoras del hogar. OXFAM.

Ministerio de Igualdad (2020). Día Internacional de las Trabajadoras del Hogar.

Odriozola, L. A. (2013). *Segregación ocupacional e inmigración en el mercado de trabajo español: una perspectiva de género* (Doktorego-Tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea).

Organización Internacional para las Migraciones (2019). Informe sobre las migraciones en el mundo 2020. *ONU Migración*.

- Orozco, A. (2007). Cadenas globales de cuidado. Serie Género, Migración y Desarrollo. *Documentos de trabajo* (2).
- Oso, L., & Parella, S. (2012). Inmigración género y Mercado de trabajo: una panorámica de la investigación sobre la inserción laboral de las mujeres inmigrantes en España. *Cuadernos de relaciones laborales* (30).
- Paniagua de la Iglesia, T. (2019). Inserción, movilidad y crisis: trayectorias laborales de las mujeres inmigrantes empleadas en el servicio doméstico y los cuidados en España. (Doktorego-Tesia, Salamankako Unibertsitatea).
- Parella Rubio, S. (2005). Segregación laboral y vulnerabilidad social de la mujer inmigrante a partir de la interacción entre la clase social, el género y la etnia. *El uso de las políticas sociales por las mujeres inmigrantes*.
- _____ (2007). Las migraciones femeninas y la internacionalización de la reproducción social. Algunas reflexiones. *Quaderns de la Mediterrània* (7).
- Pérez, J. I. (2009). Crecimiento y características del empleo de los inmigrantes en España. *Revista del Ministerio de Trabajo e Inmigración* (80).
- Piper, N. (Ed.). (2013). *New perspectives on gender and migration: Livelihood, rights and entitlements*. Routledge.
- Pizarro, J. M. (2007). Feminización de las migraciones en América Latina: discusiones y significados para políticas. *Actas del Seminario Mujer y Migración, Conferencia Regional sobre Migración*.
- Programa de las Naciones Unidas para el Desarrollo, & Naciones Unidas. Programa para el Desarrollo. (1992). El abismo de la desigualdad: informe sobre desarrollo humano.
- Ramírez, E. (1992). Demografía general. Teoría, métodos y comportamientos. *Instituto de Investigaciones Económicas y Sociales de la Facultad de Ciencias Económicas y Sociales de la Universidad de los Andes*.
- Reyes, L., & Bertrán, C. (2020). Condiciones de vida de les treballadores de la llar i les cures centreamericanes a Barcelona. *Barcelona: Centre d'Informació per a Treballadors Estrangers*.
- Rodríguez, R. M. R. (2008). Mujeres jóvenes inmigrantes: otro rostro de la globalización. *Revista de Estudios de Juventud*, (83).
- Sallé, MA., Molpeceres, L., Óngil, M. (2009). Análisis de la situación laboral de las mujeres inmigrantes: modalidades de inserción, sectores de ocupación e iniciativas empresariales. *Colección Estudios N° 110. Instituto de la Mujer*.
- Sánchez Alonso, B. (2002). La época de las grandes migraciones: desde mediados del siglo XIX a 1930. *Procesos migratorios, economía y personas* (1).

Sainz, C. G., Pérez, M. L. S., & Olivero, N. Y. V. (2011). Procesos de movilidad social e itinerarios laborales de las inmigrantes a través de los programas de inserción en el empleo. In *Actas del I Congreso Internacional sobre Migraciones en Andalucía*. Instituto de Migraciones.

Santos, F. (1999). Exiliados y emigrados: 1939-1999. *Fundación Españoles en el Mundo* (22).

Shershneva, J., & Aragón, I. F. (2018). Factores explicativos de la sobrecualificación de las mujeres inmigrantes: El caso vasco. *RES. Revista Española de Sociología*, 27(1).

Sutcliffe, Bob. (1998). Nacido en otra parte. *Hegoa*. Bilbao.

Thayer, E. (2011). Trabajo y género: la condición social de inmigrante como referente para la definición de la identidad. *Mujeres inmigrantes en Chile; mano de obra o trabajadoras con derechos*.

Toro, J. C. (2018). El viaje femenino a América (1493-1600). *X Congreso virtual sobre Historia de las Mujeres (15 al 31 de octubre de 2018)*.

Datu baseak eta webguneak:

ACNUR webgune ofiziala. Eskuragarri hemen: <https://www.acnur.org/datos-basicos.html> [Kontsulta eguna: 2022/06/23].

Eurostat webgune ofiziala. Eskuragarri hemen: <https://ec.europa.eu/eurostat> [Kontsulta eguna: 2022/06/23].

Euskal ekonomiaren kazeta. Etxeko langileek babes handiagoa dute LANERen 189 hitzarmena sinatzean. Eskuragarri hemen: <https://www.berria.eus/paperekoa/5201566/016/006/2011-06-17/oitk-etxeko-lanari-buruzko-konbentzioa-onartu-du.htm> [Kontsulta eguna: 2022/06/23].

Annefrank webgune ofiziala. Eskuragarri hemen: <https://www.annefrank.org/es/ana-frank/en-foco/la-imposibilidad-de-huir-1933-1942-inmigracion-judia-1933-1942/> [Kontsulta eguna: 2022/06/23].

Garapenerako Nazio Batuen Programaren webgunea. Eskuragarri hemen: <https://hdr.undp.org/> [Kontsulta eguna: 2022/06/23].

INE webgune ofiziala. Eskuragarri hemen: <https://www.EIN.es/jaxi/Datos.htm?path=/t20/e245/p04/provi/10/&file=0ccaa002.px#!tabs-tabla> [Kontsulta eguna: 2022/06/23].

Mujeres en cifras. Instituto de las mujeres. Ministerio de igualdad. Eskuragarri hemen: <https://www.inmujeres.gob.es/MujerCifras/Educacion/NivelEstudios.htm> [Kontsulta eguna: 2022/06/23].

Munduko Bankuaren webgunea eta datu-basea. Eskuragarri hemen: <https://databank.bancomundial.org/source/world-development-indicators> [Kontsulta eguna: 2022/06/23].

ONU migración. Términos fundamentales sobre migración. International Organization for Migration. Eskuragarri hemen: <https://www.iom.int/es/terminos-fundamentales-sobre-migracion> [Kontsulta eguna: 2022/06/23].

Population División of the Department of Economic and Social Affairs of the United Nations Secretariat, Trends in Total Migrant Stock. Eskuragarri hemen: <https://www.un.org/en/development/desa/population/migration/data/estimates2/estimates19.asp> [Kontsulta eguna: 2022/06/23].

Portal de datos sobre migración. Webgune ofiziala. Eskuragarri hemen: <https://www.migrationdataportal.org/es/themes/genero-y-migracion> [Kontsulta eguna: 2022/06/23].

World economic forum. Webgune ofiziala. Eskuragarri hemen: <https://www.weforum.org/> [Kontsulta eguna: 2022/06/23].

Legeak:

1620/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, etxeko zerbitzuaren izaera bereziko lan-harremana arautzen duena. Eskuragarri hemen: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2011-17975>

29/2012 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, Etxeko Langileentzako Sistema Berezian kudeaketa eta gizarte-babesa hobetzeari eta izaera ekonomiko eta sozialeko beste neurri batzuei buruzkoa. Eskuragarri hemen: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2012-15764

152/2022 Errege Dekretua, otsailaren 22koa, 2022rako lanbide arteko gutxieneko soldata finkatzen duena. Eskuragarri hemen: <https://www.boe.es/boe/dias/2022/02/23/pdfs/BOE-A-2022-2851.pdf>

4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa: Atzerritartasun Legea. Eskuragarri hemen: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2000-544>